

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2024ko urtarrila / 345. zenbakia

www.oñati.eus  



Presoen eskubideen eta bizikidetzaren alde

Urtarrilaren 13an Bilbon egingo den manifestaziorako deia egin du SAREk

UDAL AURREKONTUAK-2024

23,1 milioiko aurrekontua 2024rako

Agintaldiko lehen aurrekontuak onartu ditu udalbatzak, EH Bilduren aldeko botoz eta EAJren abstentzioarekin

Agintaldiko lehen aurrekontuak onartu zituen udalbatzak abenduaren 14ko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko botoz eta EAJren abstentzioarekin. Horrenbestez, udalak 23.119.920 euro izango ditu (2023an baino %10 gehiago) 2024ko gastu, egitasmo eta erronkei aurre egiteko.

Diru sarrerei dagokienez, azpimarratzekoa da udalak 2,1 milioi euroko dirulaguntzak lortu dituela Europar Batasuneko *Next Generation* funtsetatik, bi urtetan garatuko diren 9 proiektu ezberdineri lotuta. Aipatzekoa, baita ere, Udalen Finantzaketarako Foru Funtzak 753 mila euroko igoera izango duela. Bestalde, ondasun eta zerbitzu gastuek eta transferentzia arruntek KPlaren pareko igoera izango dute.

Onartu diren aurrekontuetan 1,5 milioi euroko aurrezki arrunta aurreikusten da, "Udalaren egonkortasun ekonomikoa bermatuta geratzen delarik", gobernu taldeko ordezkarien hitzetan.

4,3 MILIOI INBERTSIOETARAKO

Hasi berri dugun urtean 4,3 milioi bideratuko ditu udalak inbertsioetara, 2023an baino %47 gehiago, batez ere *Next Generation* funtsetatik lortutako aparteko dirulaguntzei (2,1 milioi) esker.

Gobernu taldearen izenean, Ogasuna batzordeko buru Xabier Igartuak adierazi zuen pozik daudela onartutako aurrekontuarekin. "Pozik, 23,1 milioi izango ditugulako herritarren beharretara bideratzeko. Baliagarri izango dira zerbitzu publikoak indartzeko, zaurgarrienen alde egiteko, eta proiektu berriak abiarazteko". Aurrekontu proiektuari oposizioak emandako erantzunarekin ere pozik azaldu zen Igartua. "Gobernu taldeak aurkezturiko aurrekontuko zenbatekoaren %99arekin bat egin izana ez da gutxi. Proposamen landua aurkeztu dugunaren adierazgarri".

Izaro Elorza alkateak gaineratu zuen etorkizuneko erronkei behar moduan erantzuteko aurrekontu proposamena aurkeztu duela gobernu taldeak, Oñati eta oñatiarrak erdigunean izanda. "Partaidetzan sinesten dugu, berdinetik berdinerakoan, ongizatea, bidezko erduan... Eta esango nuke, gaur, hemen, onaturiko aurrekontuak bide horretan doazela".

Bestalde, EAJ kritiko agertu zen udal gobernuarekin, jeltzaleek aurkeztutako zortzi proposamenetatik bakarra jaso delako aurrekontuetan.

AURREZKIA

1,5 milioi euroko aurrezki arrunta aurreikusten dute onartutako udal aurrekontuek



INBERTSIOAK

4,3 milioi bideratuko dira inbertsioetara, horietatik 2,1 *Next Generation* funtsetatik lorturikoak

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop


► DIRU SARRERAK KAPITULUKA

I. ZUZENeko ZERGAK	
Kontribuzioa (2.651.477); lbigailuak (1.003.703); Jarduera ekonomikoak (648.708); Gainbalioa (100.000); ...	4.466.770
II. ZEHARKAKO ZERGAK	
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	500.000
III. TASAK ETA BESTE SARRERAK	
Kiroldegia (706.983); Hondakin bilketa (652.000); Hornikuntza enpresen okupazio tasa (577.000); Hondakinen tratamendua (162.000); Etxez-etxeko laguntza zerbitzua (150.000); ...	3.138.722
IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	
Foru Funtsa (10.148.105); Jaurlaritzaren laguntza-Euskalategia-Euskara (294.500); Aldundiaren laguntza-Gizarte zerbitzuak (212.000); Jaurlaritzaren laguntza-Gizarte zerbitzuak eta osasuna (110.600); ...	11.012.125
V. ONDARE-SARRERAK	
Udal enpresen —Oñargi, Ur Jauziak— dibidendoak (930.467); Musika eskolako alokairua (36.437); Aerosorgailuen kanona (21.145); ...	1.046.949
VI. INBERTSIOEN BESTERENGANATZEA	
Brigadako kamioiaren salmenta	50.000
VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK	
Next Generation laguntzak (2.160.000); GUSA-Arantzazu (111.194); Jaurlaritzaren laguntza-Ingurumena (65.410); Aldundiaren laguntza-kirolak- (41.400); ...	2.402.004
VIII. FINANTZA AKTIBOAK	
(kapital itzulketak, interesak...)	28.000
IX. FINANTZA PASIBOAK (mailegua)	
	475.348
GUZTIRA	
	23.119.920

► GASTUAK KAPITULUKA

I. PERTSONAL GASTUAK	
	7.077.969
II. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	
Etxez-etxeko zerbitzua (1.150.000); Lorezaintza zerbitzua (327.600); Eskuhartze psiko-soziala (295.227); Gaztelekuko sustapena (292.600); Kiroldegiko enpresen kontratua (285.175); Kiroldegiko garbitasuna (249.486) eta argindarra (200.000); Turismo ekintzak (234.200); Argindar publikoa (173.656); Herribusa (162.162); Natur Eskolako kontratua (123.123); ...	7.218.823
III. FINANTZA GASTUAK	
Maileguen interesak; ...	316.262
IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	
Mankomunitatea-Hiri hondakinen bilketa (692.026); Hiri-hondakinen tratamendua (455.151); Gizarte larrialdietako laguntzak (220.220); Musika Eskola (170.280); Garapen bidean laguntzak (136.500); Aloña Mendi (113.193); Herriko kultur taldeak (94.600); Musika banda (86.850);...	4.038.901
V. KREDITU GLOBALA	
	0
VI. INBERTSIO ERREALAK	
Ikusi 5. orrialdeko taula	4.321.343
VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK	
Mankomunitateari diru laguntzak inbertsioetarako (60.779); Arantzazu Fundazioari ekarpena (50.000).	110.779
VIII. FINANTZA AKTIBOAK	
	28.000
IX. FINANTZA PASIBOAK	
(amortizazioa)	7.840
GUZTIRA	
	23.119.920

► AURREKONTUAK DEPARTAMENTUKA



ZORPETZE MAILA

Udalaren finantza zama, 2024ko Aurrekontuko sarrera arruntekin alderatuz %5,51koa da.

Zor biziari dagokionez, udalaren zorra 7,9 milioi eurokoa da 2024 ekitaldiaren hasieran. Gogoratu, 2019an 11 milioi euroko mailegua eskatu behar izan zuela kiroldegiko eraberritze lanek eta beste inbertsio batzuek eragindako gastuei aurre egin ahal izateko.

2024ko aurrekontuetan 475 mila euroko maileguaren beharra aurreikusten da inbertsioei aurre egiteko, baina bere gauzapena 2023ko likidazioak baldintzatuko du, mailegu berririk behar ez izateraino.

UDAL AURREKONTUAK-2024

Egitasmo nagusiak departamentuka

BERDINTASUNA

Urteroko ekimenetarako eta Berdintasun Planean jasotako ekintzak aurrera eramateko beharrezkoak diren aurrekontuez aparte, jarraipena emango zaio, esaterako, udal gobernuak estrategikotzat duen **Emakumeen Etxearen** proiektuari (600.000€).

Gainera, gobernu taldeak urrats berriak ematen jarraitu nahi du **berdintasunean**, eta horren adierazgarri aurrekontu hauei esker garatuko diren **Jabetze Eskola** (38.000€), **Berdintasun Plana** garatzeko ekintzak, **aholkularitza juridikoa** barne (63.000€), **Hezkidetz**a programa, **Selma Huxley beka**, **Berdintasun Kontseilua** (20.000€), **Mainstreaming-a**, barne mailako sexu edo generoagatiko **jazarpen protokoloa**, **LGIBQ+ diagnostikoa**, eta abar.

PARTAIDETZA ETA

GARAPEN KOMUNITARIOA

Orain arteko bideari jarraipena emango zaio, komunitatea eta egunez egun herri hau eraikitzen laguntzen duen eragiletza ardatz hartuta. **Ekintza komunitarioan** sakondu, **komunitatea** indartu eta **elkarlanerako** bide berriak bultzatzeko proiektu edo prozesuak posible egitea, eta udalean abiatuko diren proiektu eta prozesuei **izaera komunitarioa** ematea ahalbideratuko dute aurrekontuok.

Oñatiko **Harrera Plan integrala** lantzea (24.000€), **udal-gardentasunean** eta garapen-bideko **kanpo lankidetzan** jarraitzea (136.000€), eta **Eltzia** egitasmoari sostengua ematea bermatuko dute, bai inbertsioetan eta baita dinamizazioan ere (179.000€), besteak beste.

SOZIOEKONOMIA

Oro har, mantendu egiten dira aurrekontuak arlo honetan, eta partida berri bat sortu da **tokiko merkataritza** sustatzeko (30.000€). Horrez gain, pertsona **langabetuak** kontratatzeke dirulaguntzetara (20.000€) eta **enpresa berriak** sustatzera (25.000€) bideraturiko partidak indartu egin dira.

ONGIZATEA

%20ko igoera izango duten aurrekontuek arlo honetan (2.200.000€). Orain arte bezala, pertsonen **eskubide**, **bizikaltate** eta **ongizatearen** onurarako izango diren hainbat proposamen garatzeko balioko dute. Hor daude **Etxez-etxeko Laguntza** zerbitzua (1.150.000€), **Gizarte larrialdietarako laguntzak** (220.000€), **eskuhartze psiko-sozial-hezitzailea** (295.000€), **gizarte arriskuko** egoeretarako dirulaguntzak (33.000€) eta **Eguneko Zentro Arineko** partida (35.000€).

Diru-lerro berriak ere izango ditu, emakumeen **arreta psikologikorako** (15.000€), **Afagirentzat** (13.000€) eta **zaintza eredu berriak** lantzeko (20.000€), esaterako.

LURRALDE

ANTOLAMENDUA

Hauek dira arlo honetako diru-partida nabarmenenak: **Torreauzo-Zañartu** bidegorria (569.000€), **irisgarritasun** lanak (300.000€), **disuasio aparkalekua** (200.000€), **udaletxeko plaza inguruko** esku hartze integrala (300.000€), **Usakoko** aisialdi eremuko paisaia lehengoratzeta (200.000€), **Arantzazu eta Araozko aparkalekuak monitorizatzea** (126.000€), **landaluz izaerako partzelak digitalizatzea** (50.000€), **16 landa auzoetako** inbertsio eta **dirulaguntzak** (304.000€), **landa garapenera** bideratutako dirulaguntzak (67.000€), **zarata mapa** (20.000€), **termiten** prebentziorako azterketa (20.000€),...

INGURUMENA

Iraunkortasunaren bidean sakontzeko, **energia jasangarritasunerako** partida indartsu bat mantentzen dugu aurten ere, horren aldeko apustua berretsiz (150.000€). Bestetik, hondakin organikoaren bilketarako **auzo-konpost sistema** indartzea eta **basoen kudeaketa** iraunkorrerako lursail patrimonialak erosteko aukera eskainiko dute, besteak beste, udal aurrekontuek.

► **Emakumeen Etxea** eraikitzeke bigarren faseko lanak egingo dira

► **Bidegorria** egokituko da **Torreauzo eta Zañartu** artean

► **Emakumeentzako aholkularitza juridikoa** jarriko da martxan, **diskriminazio**, **babesgabetasun** eta **indarkeria** egoeretan laguntzeko

► **Oñatiko Harrera Plan** integralaren lanketa egingo da, **komunitatea** ardatz duelarik

► **Tokiko merkataritza** sustatzeko diru-lerro berriak sortu da

► **Langabetuak** kontratatzeke eta **enpresa ekimen berriak** sustatzera zuzendutako diru partidak indartu egin dira

► **Zaintza eredu berriak** lantzeko diru-lerro bat sortu da

► **Aniztasun funtzionala** duten haur eta gaztetxoentzako zerbitzua sortuko da **ludotekan**

► **Gaztetxo**en **euskararen erabilera** hobetzeko ekimenak antolatuko dira



**IZARO
ELORZA**
EH Bildu

" Partaidetzan sinesten dugu, berdinetik berdinerakoan, ongizatean, bidezko eremuan... eta onartu ditugun aurrekontuak bide horretan doaz.



**XABIER
IGARTUA**
EH Bildu

" Zerbitzu publikoak indartu, zaurgarrien alde egin eta proiektu berriak abiarazteko aukera emango digute onartu ditugun udal aurrekontuek.

KIROLAK

Kirol jarduera sustatzeko eta horientzako azpiegitura egokiak eta bitartekoak eskaintzen jarraitzeko aurrekontuak ere badira hauek. Tartean, **kantxa urdineko teiltatua** konpontzeko diru-lerroa jasotzen du (278.000€). Gainera, **heziketarako bitartekoa** ere badenez kirola, bide horretan doazen ekinbideetan sakontzea ahalbideratuko dute 2024ko aurrekontuek. Hala, **Poz** zerbitzua zein **Indarkeria eta maskulinitatea kirol programa** gauzatzea bermatuko du, beste batzuen artean.

HEZKUNTZA

Orain arteko zerbitzu guztiak mantentzeaz gain, berriak sortuko dira Oñati **Herri Hezitzaile** bezala indartzeko helburuarekin. Proiektuak **ikastetxeekin elkarlanean** lantzen jarraituko du Udalak. Hala, mugikortasun iraunkorra sustatzea helburu duen **Eskolako Bidean** programan sakontzen jarraituko du. Baina **inklusioa** helburu duten **Auzoko** eta **Txipistin** zerbitzuetan, **helduei** zuzendutako heziketan eta **hezkuntza eraikinetako** inbertsioetan. Azken horri bideraturiko partidari esker bigarren faseko lanak egingo dira **Urgain-Errekalde** herri eskolako jolas eremuan (232.000€), besteak beste.

HAURRAK ETA GAZTERIA

Arlo honetako aurrekontuek posible egingo dute egitasmo eta zerbitzu berriak abiaraztea, eta beste batzuk egonkortzea. Esaterako, **Ludotekako** zerbitzua egungo beharretara egokitzea, **aniztasun funtzionala** duten haur eta gaztetxoei zuzendutako zerbitzua sortuko

da (10.500€) eta gazteen **sormen** eta **emantzipazio** diru-laguntzen aldeko apustuarekin jarraituko da (80.000€). Azpimarratu behar da, gainera, **Gaztelekuko** zerbitzua hobetzeko, hari loturiko partida igo dela (292.000€).

KULTURA

Arlo honetan **emakume sortzaileen** lana babesten jarraitzeko (11.000€), **etnografia** proiektuari segida emateko edota herriko **kultur sormena** eta **mugimendua** babesten jarraitzeko partidak (95.000€) barnebiltzen ditu aurrekontuak. Urtean zeharreko **antzerki** eta **musika programazioa** ere indartu egingo da (90.000€), **arte** eta **eskulan ikastaroen** moduan (28.000€).

EUSKARA

Euskararen alorrean, hainbaten artean, **euskararen presentzia** bermatzeko eta indartzeko, **Ingo Xonau** ekimenaren jarraipen eta sustapenerako, eta gaztetxoek **euskararen erabilera** hobetzeko ekimenak antolatzeke diru-lerroak jaso dira. Gainera, **udal euskaltegia** eta **Txipistin** gunea berrantolatzeke proiektua abiarazteke partidak ere jaso dira.

TURISMOA

Turismoari dagokionez aipatzekoa Europar Batasuneko **Next Generation** Funtsei lotuta lortutako laguntzei esker inbertsioetarako dauden bi partida berriak: turismoarekin lotutako **komunikazio digitala** (90.000€) eta **produktu eta euskarri turistikoak** eguneratzeko (30.000€). ■

4,3 milloi INBERTSIOETARAKO

NEXT GENERATION

funtseei lotutako inbertsioak:

- Emakumeen Etxea egokitzeko bigarren fasea **600.000€**
- Torreauso eta Zañartu arteko bidegorria **569.000€**
- Udaletxe plaza inguruko esku-hartze integrala **300.000€**
- Usakoko aisialdi eremua lehengoratzeko **200.000€**
- Disuasio-aparkalekua egitea herrigunetik hurbil **200.000€**
- Arantzazu-Araozko aparkalekuak monitorizatzea **126.000€**
- Turismoarekin lotutako komunikazio digitala **90.000€**
- Produktu turistikoak sortzea **30.000€**

BESTE BATZUK

- Irisgarritasun lanak herriko gune ezberdinetan **300.000€**
- Kiroldegiko kantxa urdineko teiltatua berritzeko **278.000€**
- Urgain-Errekalde eskolan jolas eremu berde eta inklusiboa egokitzeko 2. fasea **232.000€**
- Auzoetako inbertsioak **165.000€**
- Energia jasangarritasunerako inbertsioak **150.000€**
- Etxebizitza sozialen egokitzapena **89.000€**
- Asfaltatze lanak **75.000€**
- Landalur izaerako partzelen digitalizazioa **50.000€**
- Hlrigintza proiektuak **50.000€**
- Merkataritza biziberritzeko **25.000€**
- Kale garbiketako makineria **30.000€**
- Liburutegirako liburu, CD eta bideoak **29.400€**
- Zarata mapa **25.000€**
- Musika eskolako inbertsioak **20.000€**

UDAL AURREKONTUAK-2024



AMAIA
EROSTARBE
EAJ-PNV

"EH Bilduren gobernuak oraingoan ere ez ditu aintzat hartu oñatiarren bizitza hobetze aldera aurkeztu ditugun proposamenak."



XABIER
MUGARZA
EAJ-PNV

"1,5 milioiko inbertsioak exekutatu barik geratu dira 2023ko aurrekontuetan, eta hori zehaztasun ezaren isla argia da, gure ustez."

"Malgutasunik eza" eta "zehaztasun falta" kritikatu dio EAJk udal gobernuari

EAJren udal taldeak zortzi proposamen aurkeztu zituen udal gobernu taldearen aurrekontu proiektua "osatu eta herri-tarren bizi-kalitatea hobetzeko" asmoz. Azkenean, zortzi proposamen horietatik bakarra onartu zen eta jeltzaleak abstenitu egin ziren 2024ko udal aurrekontuen bozketan.

Amaia Erostarbek, EAJren udal taldeko bozeramaleak, gobernu taldearen "malgutasun falta ikaragarria" kritikatu zuen; "oraingoan ere EH Bilduren udal gobernuak ez ditu aintzat hartu jeltzaleok oñatiarren bizitza hobetze aldera egindako proposamenak. Zortzi emendakinetatik bat baino ez dute sartu 2024ko aurrekontu dokumentuan, eta ez dute inolako malgutasunik erakutsi gainerako zazpi proposamenak txertatzeko".

Gainera, zehaztasun falta ere kritikatu dio EAJk udal gobernuari. "Aurrekontu proiektuan jaso diren diru-lerro asko oso-oso orokorrak dira eta ez dute zehazten zertara bideratuko den dirua. Horren adibide dira honako diru-partida hauek: 'Irisgarritasun eta asfaltatze lanak', 'Energia jasangarritasunerako inbertsioak', 'Jolasguneetako obrak', 'Auzoetako inbertsioak', 'Turismo ekintzetarako gastuak'... Zeintzuk dira, ordea, irisgarritasun proiektu horiek? Zer egingo da? Zein kale, plaza edo eremu asfaltatuko dira? Zeintzuk egingo dira irisgarriago? Zein auzotan esku-hartuko da? Kasu horietan guztietan udal gobernuak orokortasunean gelditu da".

Bestalde, 2023ko aurrekontuetan exekutatu gabe geratu diren 1,5 milioi euroko inbertsioetan ere jarri zuen fokua EAJk. "Diru-lerro horien artean dago, esaterako, herriarentzat hain premiazkoa den Musika Eskolaren gaia, Herrigune historikoa eraberritzeko plan berezia,

Azoka gunea berritzeko proiektua eta Olakuako putzurako exekuzio proiektua", azaldu dute jeltzaleek. Aurten exekutatu ez diren inbertsioak, 2023ko aurrekontuaren likidazioa egin ostean, 2024ko aurrekontuan txertatzea aurreikusten duela jakinarazi die udal gobernuak, gerakinetik finantzatzuz, baina aurrekontu dinamika hori ez da egokia jeltzaleen ustez; "zehaztasun ezaren isla argia da", adierazi zuen Xabier Mugarzak.

Gobernu taldearen erantzuna

Xabier Igartuak (EH Bildu) erantzun zuen esanez, 2023a hauteskunde eta gobernu aldaketa urtea izan dela, eta halakoetan zaila izaten dela aurrekontuak guztiz gauzatzea. Hala ere, aurtengo exekuzio maila altua dela esan zuen.

EAJk aurkeztutako proposamenen harira, Igartuak azaldu zuen gobernu taldeak eginda daukala, dagoeneko, Kale Zaharra eta Otadui arteko irisgarritasun plana, eta aurten lehen faseko exekuzio proiektua zehaztuko dela.

Arantzazuko komun inguruan, aurrena hauen jabetza argitu behar dela esan zuen, eta Kanpantxoko iturria konpontzeari dagokionez, nahiago dutela herriko ondarearen inguruko diagnostikoaren emaitza ikusi, ondoren lehentasunak markatzeko.

Musika Eskolari dagokionez, Igartuak gogoratu zuen eginda dagoela diagnostiko integral bat eta bere bidean doala.

Herribusaren 3. linea (Oñati-Elorregi) ezartzeari dagokionez, herrien arteko mugikortasuna bermatzeko konpetentzia Foru Aldundiarena dela gogorarazi zuen eta arduratsuagoa litzatekeela hari eskatzea. Bizikidetzaren mahaiari dagokionez, proiektua gehiago zehaztu beharra aipatu zuen, diru-partida bat sortu aurretik.

EAJ-PNVren PROPOSAMENAK

EAJren udal taldeak zortzi proposamen aurkeztu zituen udal gobernu taldearen aurrekontu proiektua "osatu eta hobetzeko" asmoz. Hauek dira proposamenak:

- **Herribuseko 3. linea** ezartzea Oñati eta Elorregi artean, Gasteiz, Bilbo eta Donostiarekiko loturak hobetzeko **100.000€**
- **Kale Zaharreko** azken zatiko urbanizazioa eta **Kurtzetxoraino** irisgarritasuna hobetzeko proiektua idaztea **55.000€**
- San Martin eta Olakua lotzen dituen **Mojasoro-Aldakiño** oinezkoen bidean segurtasuna hobetzea, irristakor egoten den lekuetan, erorketak ekiditeko **35.000€**
- **Musika Eskola** berria non kokatu erabakitzeak aukeren arteko azterketa konparatiboa egitea **15.000€**
- **Bizikidetzaren** batzordea edo foroa eratzea herritarren partehartzearekin, bizikidetzaren aldeko ekimenak lantzeko **15.000€**
- **Arantzazuko komunak** hobetzeko exekuzio proiektua idaztea, komun publikoen egoera hobetzeko **15.000€**
- Herribusaren 3. linea (Oñati-Elorregi) ezartzeari dagokionez, herrien arteko mugikortasuna bermatzeko konpetentzia Foru Aldundiarena dela gogorarazi zuen eta arduratsuagoa litzatekeela hari eskatzea. Bizikidetzaren mahaiari dagokionez, proiektua gehiago zehaztu beharra aipatu zuen, diru-partida bat sortu aurretik.



iraultzaile

kritiko

ausart

aske

kontziente

solidario

ekintzaile

ETA, BERAK AUKERATU BEHARKO BALU?

Urtarrilean...

Bisita
Pertsonalizatuak

idazkaritza@elkarhezi.eus
943 71 82 72 / 688 621 195
www.elkarhezi.eus

16 Mindfulness
praktikaren onurak,
haurdunaldian hasita

19 HH2 ere zabalik
LORTU DUGU!
Esker on luntxa



geuk

zentzuz · gogoz · ekinez

Oraina ulertu eta etorkizuna proiektatzeko, ongi etorri iraganera

Euskal Herriko historia ezagutzeko jardunaldiak antolatu ditu Oñatiko Nabarralde taldeak. Erakusketa eta irteera bana eta bi hitzaldi.

GAZTELUAITZEN GARAIA

Izenak, izana. Gazteluaitzek ere bai.

Iñaki Sagredok gaztelu nafarren gaineko bere liburu bilduman zerrendatu zuen 2007an, argazki eta guzti. Antton Arrieta etorri da ondoren eta Aranzadik indusketak egin ditu, zera baieztatuz: Nafarroako Antso III. Nagusiaren garaian (1004-1035), Gazteluaitzeko gaztelua bizirik zela.

1200eko konkista aurreko garaiak ziren, eta Oñati erresuma nafarreko, Europan errekonozitutako euskal estatuko, parte zen. Oñatiarrok, nafar ginen politikoki, gainontzeko euskaldunak bezala.

Zer nolakoa zen estatu hori? Zein hedadura, defentsa sistema, antolaketa, administrazio eta justizia zituen? Hori ezagutzeko aukera izango dugu **Iñaki Sagredoren** hitzaldian.

ORREAGA / ERROZABAL. ESTATU NAFARRAREN SORRERA

Horra iristeko baina, abiapuntua behar. Nola sortu genuen estatua, 824an?

1200 urte betetzen diren honetan, zer dakigu une erabakigarri hartaz?

Orreagako hiru gudaldien ostean altxatu genuen Eneko Aritza errege, kanpo indarren aurrean defentsa antolatzeko. **Xabier Irujoren** eskutik sakonduko dugu gai honetan.

Bitartean, **Habitat** izeneko erakusketa paratuko dugu aurten ere, gure lurretan gizakiak izan duen bilakaera politiko-instituzionala erakusten duena: aurrekariak erromatarren garaitik, sorrera, gorpuztea, eta zatika-zatikako bortxazko desegitea. Publikoarendako zein DBH4ko ikasleendako bisita gidatuak izango ditugu, **Beñi Agirreren** eskutik.



Iñaki Idigoras
(Nabarralde)



EGITARAUA



URTARRILAK 22

BISITA GIDATUA

'HABITAT: Euskaldunon historia mapen bitartez' erakusketara bisita gidatua Beñi Agirrerren eskutik, Kultur etxeko erakusketa gelan, 18:30

URTARRILAK 22- OTSAILAK 3

ERAKUSKETA IREKIA

'HABITAT: Euskaldunon historia mapen bitartez' Erakusketa irekia. Kultur etxeko erakusketa gelan, egunero 18:00-20:00

URTARRILAK 23

HITZALDIA

'ORREAGA/
ERROZABAL: Estatu nafarraren sorrera' Hizlaria: Xabier Irujo. Kultur etxeko zine aretoan, 19:00

URTARRILAK 28

IBILALDIA

'GAZTELUAITZERA
IBILALDIA' Arantzazuko Sindika ostatu aurretik irten eta Bellotzatik bueltatu, 9:00

URTARRILAK 30

HITZALDIA

'GAZTELUAITZEN
GARAIA: Estatu nafarraren gorena' Hizlaria: Iñaki Sagredo. Kultur etxeko zine aretoan, 19:00

Presoen eskubideen eta bizikidetzaren alde urtarrilaren 13an Bilbon egingo den manifestaziorako deia egin du SAREk

➔ Autobuserako tiketak Kale Barriko Gure Eskuren lokalean eskuratu ahal izango dira urtarrilaren 4tik 11ra (18:00-20:00)



Hainbat herritarrek egin dute bat 'KONPONBIDERA KO GILTZAK' manifestuarekin

'KONPONBIDERA KO GILTZAK' goiburuarekin urtarrilaren 13an Bilbon (La Casilla, 16:00) egingo den manifestazioan parte hartzeko gonbitea luzatu dio SAREk euskal gizarteari. Mobilizazio baketsu eta demokratikoa izango da eta helburua da Bilboko kaleak betetzea giltza bana eskuetan duten milaka pertsonekin.

Giltza da, izan ere, SAREk aurkeztu berri duen *Konponbiderako giltzak* manifestuan darabilen ikurra; iraganeko minak, gorrotoak eta biolentziak atzean uzteko eta ixteko —inoren sufrimendua ahaztu edo gutxietsi gabe— balio duen giltza, eta, aldi berean, konponbideari atea irekitzeko balio duena.



"Bide horretan urratsak ematen jarraitzeko beharrezkoa da euskal preso, iheslari eta deportatuen aferari irtenbide ematea, bai eta biktimak guztiei tratamendu justu eta berdina ematea. Baina, tamalez, presoek legearen bidea jorrazteko atea ireki ahala, ugaritzen ari dira legedia ezartzeko oztopo diren sarraila berriak: salbuespenak giltzarrapo izaten darrai, etxerako atea itxita jarraitzen du", adierazi du SAREk. Horren erakusle dira Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak euskal presoentzat onartutako gradu-progresio kasuen %60 errekurritu izana Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak. Preso horietako askok 20 urtetik gora daramate preso eta eskubidea dute baldintzapeko askatasunean edo erregimen irekian egoteko, gogorazi du SAREk.

Horregatik, presoen etxerako atea zabalduko duen giltza eskuan hartzeko dei egiten die SAREk herritarrei, konponbidearen eta elkarbizitzaren atea parez pare zabaltzeko. "Ez gara zigorgabetasuna eskatzen ari, zigorrak betetzeko legeak berak eskaintzen dituen aukera desberdinei atea irekitzea baizik. Espetxe eredu berri, humanizatu eta justuago batean sakondu, herri honetan sufritu duten pertsona guztiak aintzat hartuz eta biolentzia ezberdinen biktimak diren guztiak errespetatuz".

Horregatik, guztiagatik, Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzera deitu ditu herritarrak. Oñatin autobusak antolatuko dira Bilbora joateko, eta tiketak Kale Barriko Gure Eskuren lokalean eskuratu ahal izango dira urtarrilaren 4tik 11ra (18:00-20:00).

Emakumeentzako Aholkularitza Zerbitzu Juridikoa jarriko du martxan Udalak

Aholkularitza juridikoaren bidez emakumeen autonomia eta ahalduntzea sustatzea da helburua

ZER DA?

Aholkularitza eta orientabide berezia arlo juridikoan, genero ikuspegitik, emakumeen diskriminazio, babesgabetasun eta indarkeria egoeren inguruan laguntzeko: banaketa, dibortzioa, emakumeen kontrako erasoei buruzko prozesu penalak, dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak, mantenu pentsioen ordainketa ezak, bisita erregimenen ez betetzeak, atzeritartasunarekin lotutako arazoak, etxeko langile zein gainontzeko langile emakumezkoen kaleratzeak, lan arloko diskriminazio kasuak, eskubideei buruzko informazioa, laguntza sozialak eta bestelako kontsultak.

Zerbitzu honen helburua da aholkularitza juridikoaren bidez emakumeen autonomia eta ahalduntzea sustatzea, erabakiak hartzeko eta irtenbideak bilatzeko prozesuan parte-hartze aktiboa izan dezaten.

NORI ZUZENDUTA DAGO?

Oñatin bizi diren edo bertan lan egiten duten emakumeei zuzendutako zerbitzua da.

ZERBITZUAREN ERABILERA

Zerbitzuaren beharra duenak, aurrez txanda hartuta, zuzeneko arreta zerbitzua jasoko luke. Txanda hartzeko, **berdintasuna@onati.eus** helbidera idatzita edo Berdintasun departamentuarekin harremanetan jarrita 943780411 (010) telefonoaren bitartez. Zerbitzua doakoa izango da.

Irule abokatu taldeak eskainiko du Zerbitzua. Hasiera batean, hilean behin etorriko dira Oñatira, eta Ramon irizar eta Atzeko Kale arteko plazan Udalak daukan bulegoan eskainiko da.

Emakumeentzako Jabetze Eskola

Negu-udaberriko tailer eta ikastaro eskaintza aurkeztu du Udalak

Udaleko Berdintasun sailak negu-udaberrirako antolatu duen Jabetze Eskolak bederatzi ikastaro egiteko aukera eskaintzen du. **Urtarrilaren 21a** da izena emateko azken eguna. Informazio gehiago: 943780411 (010) / **berdintasuna@onati.eus**. Jabetze Eskola hausnarketarako eta formaziorako topagunea da, eta Udalak animatu egiten ditu herriko emakumeak bertan parte hartzea. :

- **Autoestima eta ahalduntzea** **Urtarrilak 29-Martxoak 25 (Gaztelaraz)**
Irakaslea: Pepa Bojó. Iraupena: 16 ordu (astelehenak 18:00-20:00)
- **Gure bizi energia hobetzen: Chi Kung** **Urtarrilak 31-Martxoak 27 (Euskaraz)**
Irakaslea: Idoia Eizmendi. Iraupena: 12 ordu (asteazkenak 14:30-16:00)
- **Plazera, desioa eta jolasa** **Martxoak 2 (Euskaraz)**
Irakaslea: Iraide Gulin. Iraupena: 4 ordu (larunbata 10:00-14:00)
- **Banandutako emakumeentzako osatze eta ahalduntze tailerra**
Otsailak 3, martxoak 9, apirilak 20 eta maiatzak 11 (Euskaraz)
Irakaslea: Clara Wolfram. Iraupena: 16 ordu (larunbatak 10:00-14:00)
- **Atsoen errana da... Ipuinak emakumeon jabetze tresna**
Otsailak 6-martxoak 26 (Euskaraz)
Irakaslea: Dorleta Kortazar. Iraupena: 16 ordu (astearteak 18:00-20:00)
- **Arrazakeriaren aurkako genealogia feministak**
Otsailak 21, martxoak 13, apirilak 17 eta apirilak 27 (Gaztelaraz)
Irakaslea: Luciana Alfaro. Iraupena: 8 ordu (18:00-20:00)
- **Menopausiarekin bueltaka** **Apirilak 18 eta 28, eta maiatzak 2 (Gaztelaraz)**
Irakaslea: Juncal Azulgaray eta Isabel Moreno (ostegunak 18:00-20:00)
- **Migrazioa dolua** **Otsailak 10, martxoak 16, apirilak 6 eta maiatzak 4 (Gaztelaraz)**
Irakaslea: Silvia Zuñiga. Iraupena: 12 ordu (larunbatak 11:00-14:00)
- **Amatasuna 360°** **Otsailak 20-Martxoak 12 (Euskaraz)**
Irakaslea: Juncal Azulgaray. Iraupena: 6 ordu (astearteak 10:00-11:30)



Ikastaroez gain **solasaldi** bat ere programatu da: 'Depresioa eta bere errekonstruzioa. Begirada soziokultural eta feminista bat' (otsailak 21), eta **Selma Huxley** ikerketa bekaren III. edizioko lanaren ('Oñatiko emakume mojen izaera, bizimodua eta ekarpena ikuspegi feministatik') aurkezpena egingo da otsailaren 14an.

'Pumptrack' gunea egokitzeko esleipen prozesua abian

Eltzia eraikinaren atzealdean egokituko dute

Pumptrack gunea egokitzeko lanak emateko lizitazioa abian jarri du Udalak. Otsailaren 2ra arteko epea dago eskaintzak aurkezteko eta, ustekaberik ez bada, martxoan hasiko lirateke lanak, hiru hilabeteko exekuzio epea eta 100.000 euroko (BEZ barne) aurrekontuarekin.

Bihurgunez, goragunez eta sakangunez jositako zirkuitu itxia da *pumptruck*-a, mendi bizikletan, patinetan edo *skate*-an ibiltzeko. Txirrindulari edo *rider*-ak bere pisuaren inertzia aprobetxatuz egiten du aurrera, teknika eta trebezia baliatuz.



EZAUGARRIAK: Larraña auzoan egokituko den *Pumptrack*-ak bi gune nagusi izango ditu: 150m.-ko luzerako zirkuitua, zailtasun maila ezberdineko azpi-guneekin, eta 10 m.-ko erradiodun asfaltozko atseden gunea. Oro har, bost peralte eta askotariko erabilerarako 24 modulu izango ditu, aldi berean 37 lagunek erabiltzeko aukera egongo delarik.



Araozko ostatuaren ustiaketa lizitaziora ateratu du Udalak

Egun Araozko ostatua kudeatzen duen emakidunak kontratua bertan behera uztea erabaki duenez, Udalak deialdi berria egitea erabaki du Araozko taberna-jate-txea eta lau apartamentuen ustiaketa errentan emateko. Lau urteko kontratua sinatuko da, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (lehen urtea) 25.000 eurotan finkatu da. Interesatuak otsailaren 29ra arteko epea dute eskaintzak aurkezteko. Kanona hobetzea (31 puntu), ostalaritzako esperientzia (20 puntu) eta jarduketara plana (49 puntu) baloratuko dira.

3 milioi inguru kostako da unibertsitatearen fatxada birgaitzea

Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo eta Lurralde Antolaketa diputatu Azahara Dominguezek abenduaren 22an eman zuen Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatearen egoeraren berri Batzar Nagusietan. Fatxadaren narriadura progresiboaren arrazoiengatik azterketa egin dute eta horren arabera 3 milioi inguruko kostua izango dute birgaitze lanak. Aurtengo proiektuaren erredakzioaren lizitazioa martxan jarriko dutela aurreratu zuen.



Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com

Gizarte sozialistaren eraikuntzan artea bidelagun

Deba bailarako Kontseilu Sozialistak antolatuta, **III. Guda Zelaia** jardunaldiak egingo dira Oñatin, urtarrilaren 27an. Artearen eta kulturaren esparrutik gizarte sozialistaren eraikuntzarako ekarpena egitea da helburua.

Artearen eta kulturaren inguruko kezkak mahai gaineratu eta hausnarketak partekatzeko gune bat eskaintzea da Deba bailarako Kontseilu Sozialistak antolatzen dituen **Guda Zelaia** jardunaldien helburua. Aurreko bi ekitaldiak Arrasaten eta Bergaran egin ziren eta aurtengoa Oñatin izango da, urtarrilaren 27an. Aitor Tatiegik eman digu jardunaldion berri.

Zer dira **Guda Zelaia** jardunaldiak?

Artearen eta kulturaren inguruko kezkak eta hausnarketak partekatzeko gune bat da. Artearen funtzioaren eta gizarte eraikuntzari egin diezaiokeen edo egin beharko liokeen ekarpenaren inguruko gogoeta plazaratu nahi dugu.

Lehen edizioan, Arrasaten, ikuspuntu orokor batetik jorratu genuen gaia; iaz, Bergaran, musika eszenari buruz egin zen berba, eta aurtan arte eszenikoak (zinea, antzerkia...) izango ditugu hizpide nagusi. Goiz partean zineari buruzko hitzaldi-solasaldi bat egongo da eta, kontutan hartuta Oñatin zinemagintzarako zaletasun handia dagoela (laburmetrai rallya, Gaztetxeko *Martizinema* jardunaldiak edo *Mari* filma, Xup! taldekoen *Beita* websaila...) uste dut oso interesgarria izan daitekeela. Horrez gain, Mugimendu

Sozialistaren baitan sortutako *Ekida* kultur taldeak prestatu duen antzezlan berria estreinatuko da -antzerki mundura hurbiltzeko aukera polita izan daiteke jende askorentzat-, bakarriketak ere egongo dira (tartean bizpahiru oñatiar)... Interesgarria dator aurtengo Guda Zelaia, eta artearekiko kezkaren bat duten herritar guztiak animatzen ditut jardunaldietan parte hartzera.

Deba bailarako Kontseilu Sozialistak antolatzen ditu jardunaldiak. Zer da, zehazki, erakunde hori?

Kontseilu Sozialista zer den ulertzeko, aurrena Mugimendu Sozialista zer den ulertu behar da. Azken batean, 2010 urte aldera ezker abertzalearen baitan eman zen ziklo aldaketaren aurrean hainbat gazte erreferente barik geratu ziren antolakuntzari begira. Instituzio politikoetatik aparte antolatuko den indar bat martxan jartzea beharrezkoa ikusten zen, langile klasearen (ikasleak eta pentsiodunak barne) interesak defendatzeko, uste dutelako gaur egungo instituzioak bideratuta daudela gaur egungo sistema kudeatzera eta gaur egungo egoera mantentzera. Ikasle Abertzaleak taldearen biltzarrean



Aitor Tatiegik, Deba bailarako Kontseilu Sozialistako kidea

finkatu ziren mugimendu sozialistaren oinarriak, eta hortik aurrera talde eta eragile ezberdinak sortzen joan dira bere baitan: *Gazte Koordinadora Sozialista* (gazte erakundea), *Itaia*, (emakumeen antolakunde sozialista), eta *Ekida* (artearen esparruko taldea). Horiez gain, *Gedar langile kazeta* (web ataria eta paperezko *Arteka* hilabetekaria) ere sortu du mugimendu sozialistak, gai ezberdinen inguruko artikulua sendoekin. Eta prozesu horren baitan, 2022ko abenduan Iruñerriko Kontseilu Sozialista eratu zen eta, gerora, beste hainbat kontseilu eratu dira Euskal Herriko eskualde ezberdinetan. Azken batean, Mugimendu Sozialista egituratzeko antolakundeak dira.

Zein dira Mugimendu Sozialistaren helburuak eta lan ildoak?

Helburua litzateke klaserik gabeko eta inolako zapalkuntzarik gabeko jendarte bat eraikitzea; ez emakumeenganako zapalkuntzarik, ez jende arrazializatuaren ganakorik, ez langile klasearen aurkakorik...

Norabide horretan, helburu estrategiko bezala Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntza bultzatzen dugu, baina horretarako ezinbestekoa da gaur egungo sistema eredu burges-kapitalista gainditzea, zeren, bestela, ezinezkoa baita lehen aipatutako zapalkuntza horiek gainditzea. Ez dugu askapen prozesurik ikusten egungo termino kapitalistetan.

Ildo horretan, egunerokoan sortzen diren arazoei aurre egiteko tresna edo mekanismoak ere sortu dituzue, hala nola, Laneko Autodefentsa Sarea. Zein da bere funtzioa?

Bai, apirilean aurkeztu genuen Oñatin Deba bailarako Laneko Autodefentsa Sarea. Oraindik lehen urratsak ematen ari gara, baina asmoa da antolakuntzarako eta borrokarako espazioak garatzen joatea, lan arloan jasaten ditugun zapalkuntza eta eskubide urraketei aurre egiteko. Sindikalismo tradizionalak bere mugak ditu, gure ustez, beraien eragiteko esparrua guztiz instituzionala delako, eta uste dugu beharrezkoa dela hortik kanpora egongo den langileen antolakuntza. Harremanetarako, las.debabailara@gmail.com / 631177047.

Etxebizitza Sindikatoa ere sortu duzue.

Bai, langile klasearen pobretzea gero eta larriagoa da eta gaur egun oso oso zaila da etxebizitza bat edukitzea. Gazteen emantzipazio ezintasuna, alokairu prezioen igoerak, etxegabetzeak... Arazo larriak daude etxebizitzaren inguruan, eta uste dugu arlo horretan ere eragin beharra dagoela modu antolatuan (esindikaturak debabailara@gmail.com / 671195924).

Euskal Herriko Kontseilu Sozialista alderdia aurkeztu duzue berriki. Zein asmorekin?

Azken urteotan mugimendu sozialistak egindako urratsen segida bezala ikusi behar da. Mugimendu sozialistaren erreferente politikoa izatea da helburua, baina asmoa ez da alderdi instituzionalen antzera jokatzea. Helburua da, estatu sozialista eraikitzeo baldintza ideologiko eta politikoak sortzea, bai Euskal Herri mailan eta baita nazioartean ere. ■

EGITARAUA

URTARRILAK 27, LARUNBATA

• HITZALDI-SOLASALDIA

Santa Ana antzokian, 11:00

Zinearen inguruko hitzaldi-solasaldia sektoreko eragile ezberdinekin.

• KONTZERTUA

Boga aurreko plazan, 13:00

Kontzertu akustikoa, Bergarako **Katarsia** hirukotearen eskutik.

• BAZKARIA

Antixena gaztetxean, 14:00

• BAKARRIZKETA SAIOAK

Antixena gaztetxean, bazkalostean

Iker Plazaola, eta Lide Arregi oñatiarren, Asier Kortabarria bergararren eta Manex Astigarraga debarraren bakarrizketak.

• ANTZERKIA

18:00 (Tokia zehaztu gabe)

Ekida taldearen antzezlan berriaren estreinaldia. Dohainik.. Ondoren **BERTSO-POTEOA** Maider Arregi, Martin Abarrategi eta Aroa Arrizubietarekin.

• KONTZERTUAK

Antixena gaztetxean, 22:30

Kaparrak taldea (eta zehaztu gabeko beste talde bat)



Arrasaten egin ziren I. Guda Zelaia jardunaldietako irudia
(Argk.: Gedar)

JUANJE MARGOAK
627 818 247



ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com

gaitu.eus

Ahots teknologiak euskalduntzeko GAITU kanpaina jarri dute abian Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak.



➔ Ahotsen banku digital bat sortzea da helburua, makinei eta teknologia berriei euskara irakasteko helburuarekin.

➔ Euskal hiztunei **gaitu.eus** atarian sartu eta beren ahotsa grabatzeko deia egiten zaie. Zenbat eta gehiago, hobeto.

Makinek eta teknologia berriek euskara ulertu eta hitz egitea nahi badugu, aurrena irakatsi egin behar diegu. Eta horixe da, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak abian jarri duten GAITU kanpainaren helburua.

'Batu ditzagun gure ahotsak' lelopean, **gaitu.eus** atarian sartu eta beren ahotsa grabatzeko deialdia egiten zaie euskal hiztunei. Izan ere, gaur egungo teknologia berriek idatzizko eta ahozko datu-masa erraldoiak erabiltzen dituzte eta, beraz, zenbat eta ahots eta grabazio gehiago, orduan eta zabalagoa izango da teknologia berriek lantzeko izango duten datu eta material kopurua.

Tamalez, hizkuntza gutxituak ez daude enpresa teknologiko handien asmoetan eta, beraz, euskal hiztunok izan behar dugu gure hizkuntza mundu digitalean sartzearen arduradunak, administrazio publikoen bultzadarekin. Adimen artifizialak aldaketa sakon asko dakartzan garaiotan ezinbestekoa da euskarari leku egitea teknologia berrietan, eta horrek herritarren inplikazioa eskatzen du. Ahots asko eta askotarikoak behar dira, adin tarte, genero eta mota guztietakoak. Beraz, animatu. Oso sinplea da.

Ahotsak biltzeko *Common Voice* izeneko plataforma irekia erabiltzen ari dira. Publikoki eskuragarri dagoen datu-sorta bat da, irabazi asmorik gabekoa, kolaboratiboa, software librea erabiltzen duena. Ahotsa darabilten aplikazioak sortu nahi dituzten enpresa edo erakundeek erabili ahal izango dute euskarazko tresna eta aplikazio berriak sortzeko.

Nola parte hartu GAITU kanpaina



Oso erraza da GAITU kanpaina parte hartzea eta gure ekarpena egitea euskararen alde (ikusi ondoko orrian). **gaitu.eus** webgunean sartu behar gara eta bi aukera edo bi eginkizun proposatuko dizkigu plataformak: **Hitz Egin** edo **Entzun**.

HITZ EGIN atalean pantailan agertuko zaigun esaldia irakurri behar dugu ozenki grabatzen den bitartean. Aldiko bost esaldi dira, baina bakoitzak nahi adina esaldi graba dezake.


ENTZUN atalean beste hiztunek grabatutako esaldia entzun eta balioztatzea edo ontzat ematea proposatzen zaigu. Hau ere nahi adina aldiz egin daiteke. Esaldi bakoitza bi pertsonen berrikusi eta onartu behar dute *Common Voice* sisteman sartu aurretik.

FAGOR
PROFESSIONAL



ONNERA GROUP

Lagundu zuk ere teknologia berriei euskara irakasten



1.- Sartu **Gaitu.eus** webgunean eta sakatu **'Eman zure ahotsa'** estekan. Bi aukera agertuko zaizkigu: **'Hitz egin'** edo **'Entzun'**.



2.- Aukeratu **'Hitz egin'** (esaldiak geuk irakurtzeko) edo **'Entzun'** (beste batzuen esaldiak entzun eta balioztatzeko).



3.- **'Hitz egin'** atalean sartu bagara, argazkikoa bezalako bost esaldi labur irakurtzeko eskatuko digu. Eman grabatu botoiari eta irakurri aldiko bat. Errepikatzeko aukera ere ematen du. Oso erraza da.



4.- **'Entzun'** atalean sartu baldin bagara, beste batzuek irakurri eta grabatu dituzten esaldiak entzun eta ontzat eman edo balioztatzeko aukera izango dugu. Aldiko bost esaldi.

Responsable Asistencial: Dra. Iñune Alzola Elizondo; colegiada nº 202005264, BPS 84/23

ARRASATEN

Zuatzu Klinika da zure konfiantzazko klinika

Ginekologia eta Obstetrizia

Jalo aurreko diagnostikoa

Bularreko patologia

Laguntza Bidezko Ugalketa

Ginekologia birsortzailea

8 Mediku profesional zuri arreta emateko

Eskatu zure hitzordua
Zuatzu Mondragón
Nafarroa Etorbidea,
4 (behea)
943 792 018

ZUATZU

KLINIKA

clinicazuatzu.com



➔ Oñatiko euskara, batua eta gaztelaniaren arteko zubiak eraiki eta euskarazko komunikazioa erraztea helburu duen liburua plazaratu du Roberto Altunak

➔ Oñatin euskaraz bizitzeko oinarritzko hiztegia eta gramatika jaso ditu bertan

GURE KATONA

Herrikoa, batua eta gaztelania bat eginda

Euskara batua eta Oñatiko erabiltzen dutenen artean gertatu ohi diren komunikazio eten edo arrakalak leundu eta euskara ikasten ari direnei bidea errazteko asmoz, *Gure Katona* liburua plazaratu du Roberto Altunak, udal euskaltegiko zuzendariak.

Adibide argigarri batekin azaldu zuen egileak berak *Gure Katona*-ren zergatia eta helburua. "Etxez-etxeko laguntza zerbitzuan ziharduen kolonbiar bat izan nuen ikasle, zerotik hasi zena. Asteko egunak eta ofizioak ikasita, joan zen lana egiten zuen etxera, 90 urteko euskaldun zahar baten etxera, eta esan zion: "Martin, asteazkena medikua", eta gizonak erantzun, "Ez, ez, ez; nik eguaztenian dakot medikua!". Eta besteak, "Qué me estás diciendo?". Alegia, komunikatu ezinik geratu ziren oinarritzko esaldi horretan.

Horregatik, errealitate horiek guztiak kontuan hartuta, Oñatiko euskara, batua eta gaztelaniaren arteko zubiak eraiki behar ditugula uste du Altunak, eta helburu horrekin sortu du **Gure Katona**. (Garai batean, eskolako lehen urteetan, gai ezberdinak ikasteko erabiltzen zen liburua zen *Katona*, Miren Palaciosek azaldu zuen moduan).

LIBURU ERABILGARRIA

Esperientziatik eta intuiziotik sortutako liburua dela esan zuen Altunak aurkezpenean, urteetan euskara irakasten izan duen esperientziatik eta gauzak erraz jartzeko asmotik osatutakoa. Eguneroko komunikazioa euskaraz izan dadin baliabide linguistikoak ematea da liburuaren helburua, bai euskaldun berriei, bai euskaldun zaharrei eta baita euskarara

hurbiltzeko ahaleaginean ari direnei ere. Horregatik, azalpen linguistiko sakonak alde batera utzi eta liburu erabilgarri, arin eta didaktikoa egin nahi izan du Altunak, eta, hala eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun hitz, esamolde, aditz eta esaerak jaso ditu liburuan, hiru zutabetan antolatuta: herriko euskararen, batuan eta gaztelaniaz, bata bestearen parean, batetik bestera salto egin eta baliokideak erraz aurkitzeko moduan, erabilgarritasuna bilatuz, betiere.

Juan Martin Elexpuru hizkuntzalariak ere liburuaren erabilgarritasuna azpimarratu zuen. "Liburu praktikoa eta arina da, baina, era berean, oso mamitsua, baita euskara dakitenentzat ere, eta eskoletan erabiltzeko ere aproposa". Liburuaren amaieran datozen ume kantuak abestuz borobildu zuten aurkezpenean, Arantzazu Sagarzazuren laguntzarekin.



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

**Herriko
txoko guztietara
iritsi nahi duzu?**

jarri zure iragarkia aldizkarian

publi@onati.eus

GURE KATONA		
DENPORA LIBRIA	AISIALDIA	EL OCIO
Aledrea Alhokia Atanboria Bakazimuk Becuetia Bibolia Dantzia Dulzaiola Erretiro-makitia KHaria Musika Radica Tanboria Teatra Telebista Txalaparta Txapak Zinea	Xakra Alboia Patideria Opetrak Berrio-saio Biolina Dantzia Dulzaina Argaki-makina Gitarra Musika Irtatza Tanboria Antroka Telebista Txalaparta Txindatza Zinema	Aledrea Alboia (instrumentu musical de viento) Pandero Vacaciones Festival de improvisadores Violin Balle Dulzaina Cámara de fotos Gitarra Música Radio Teatro Televisión Txalaparta Películas Cine
ERREKADUAK / EROSKETAK	EROSKETAK	LAS COMPRAS
Bendaria Drogeria Edariak [erariak] Eroztuna, erroia Estanka, tabako-dendia Ferreteria Joyeria Kajer automatikoa, kajerna Kaja Karmaxeria Muebleria Panaderia Pasteria Pelukeria, barberia Perfumeria	Bendaria Drogeria Edariak Eroztuna Estanka, tabako-dendia Ferreteria Joyeria Kajer automatikoa Kaja Karmaxeria Muebleria Panaderia Pasteria Pelukeria Perfumeria	Bendaria Drogeria Edariak Eroztuna Estanka Ferreteria Joyeria Kajer automatikoa Kaja Karmaxeria Muebleria Panaderia Pasteria Pelukeria Perfumeria

24

▲▼
Goiko eta beheko irudietan ikusten den moduan, hiru zutabetan antolatuta daude *Gure Katona* liburuko edukiak: herriko euskararen, batuan eta gaztelaniaz, bata bestearen parean, baliokideak erraz aurkitzeko moduan. Herriko liburudendetan eskura daiteke *Gure Katona* 2€-ren truke. Udalaren webgunetik ere (onati.eus/udala/ argitalpenak) jaitsi daiteke pdf formatuan.



'Esaiozu euskaraz!'

zaintza arloko langileei zuzendutako hiztegia argitaratu du Udalak



Udaleko Euskara zerbitzuan eta udalaren web atarian (onati.eus) ere eskura daiteke hiztegia

Zaintza arloan diharduten langileentzako oinarritzako hiztegia osatu du Udalak, Bedita Larrakoetxea udal euskaltegiko langileen ekimenez. Tamaina txikiko liburukia da (48 orrialde), poltsikoan erraz eraman daitekeena, edozein momentutan kontsultatu ahal izateko.

Zaintza-langileentzat eguneroko lanean erabilgarriak diren hitz, kontzeptu eta esamoldeak jaso dituzte bertan, 21 ataletan antolatuta. Oñatiko euskaraz eta esaten den moduan idatzita daude berba eta esamolde guztiak, ahokotasuna lehenetsiz.

Udalak 1.000 ale argitaratu ditu eta zaintza arloan lan egiten duten pertsonen banatu zaie, udaleko Gizarte Zerbitzuen departamentuaren edo Elkarzabal elkartearen bidez, besteak beste. Dena den, beharra ikusten duten herritarrek udaleko Euskara zerbitzuan eska dezakete, eta udaleko web atarian (onati.eus/udala/ argitalpenak) ere eskuragarri dago.

GURE KATONA		
ESAMOLDEAK	ESAMOLDEAK, ESAPIDEAK	MODISMOS
Adarra jo, harpa jo Ahisa janda caballero! Ahalegiak eta bost egin Ahokaria bota Ahua neurri izan Aitaren / Amaren semia edo alaba izan Aleitza esan edo ibili Alia euki Alper-alperrik ibili Andartora begira egon Aspaldikot Ate adina marritila! Aterpetik ibili Atxurra harrapo Atzian zula izan Aza ipurdia fatiko moduan geratu	Adarra jo, harpa jo Ahisa janda caballero! Ahalegiak eta bost egin Ahokada bota Ahua neurri izan Aitaren / Amaren semia edo alaba izan Aleitza esan edo ari Modokortuta egon Alfer-alferrik ibili Andartora begira egon Aspaldikot / Lagan zahar! Ate adina marritila! Aterpetik ibili Atxurra harrapatu Atzen zula izan Aza ipurdia joateko moduan geratu	Tomar el pelo Quisarse saciado Hacer hasta lo imposible Decir una exageración Decir lo que le viene en boca (referido más bien a cantidades, precios, etc.) Salir a su padre o a su madre Calcular o decir a ojo de buen cubero, al (buen) tuntún Estar borracho Andar en vano Estar en Babia ¡Viejo amigo! Tener excusas o respuesta para todo. Andar con cuidado. Ver los toros desde la barrera Coger una buena berza (esf.) Ser corno todos los demás Quedar lleno o reventar

62



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS



Cristobal Balenciaga

Moriartiko zinegileen telesaila urtarilaren 19an estreinatuko da Disney+ plataforman

Getariako moda-diseinatzailearen ibilbide profesionaleko garai oparoenetako bizipenak eta gertaerak kontatzen ditu sei ataletan



Goi-joskintzaren artearen sortzailatzat jotzen den Cristobal Balenciaga Eizagirre (Getaria, 1895-Alacant, 1972) jostun eta moda diseinatzailearen bizitzan oinarrituta, *Moriarti* ekoiztetzeko Aitor Arregi, Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak zuzendu duten *Cristobal Balenciaga* telesaila urtarilaren 19an estreinatuko da Disney+ plataforman.

Sei atal ditu telesailak eta XX. gizaldiko moda mundura iraultza ekarri zuen Getariako joskin eta diseinatzaile ikonikoaren ibilbide profesionaleko une goren eta oparoenetako gertaera eta bizipenak kontatzen ditu. "Balenciagak Parisen egin zuen ibilbidean zentratzen da telesaila. Ordurako bazen nor; Donostian, Bartzelonan eta Madrilan zituen dendak, baina moda munduko gailurra Frantziako hiriburuan zegoen, eta Espainian gerra zibila hasi zenean Cristobal Parisera joan zen bizitzera, Chanel, Dior edo Givenchy bezalako diseinatzaile handien erresuman lehitzera", azaldu digu Aitor Arregik.

Balenciagaren ibilbide profesional arrakastatsua ez ezik, garai historiko haietako gertaerak —nazien okupazioa, 50. hamarkadako boom ekonomikoarekin batera lortu zuen arrakasta, Pret-a-porter erako modaren iritsierak eragin zuen talka...— islatzen dira telesailan, baina, batez ere Cristobal Balenciaga pertsonaren psikologiari heldu diote telesailan. "Pertsona isila, diskretua eta enigmatikoa izan zen Balenciaga. Ez zuen apenas elkarriketarik ematen eta halako misterio kutsu bat zegoen bere bizitzaren inguruan. Oso zorrotza zen eta perfekzioarekiko obsesio moduko bat zeukan. Den-dena kontrolpean eduki nahi izaten zuen eta horrek, askotan, sufrimendua eta frustrazioa eragin zion, eta horixe da gehien interesatzen zitzagun alderdia", azaldu digu zinegile oñatiarrak.



Balenciaga telesailaren errodamendu baten irudi bat (Argk.: David Herranz)

Hasiera batean Donostiako Zinemaldian estreinatzekoa zen telesaila, baina Disney Plus-ek urtarilerara atzeratzea erabaki zuen, estreinaldiak dosifikatzearen. Une honetan beste proiektu batean —aurten estreinatuko den *Marco* filma— zentratuta daude Arregi, Garaño eta Goenaga, baina, zeharka bada ere, adi jarraituko dute *Balenciaga* telesailaren estreinaldia. "Ia hiru urteko lana izan da eta gogoz gaude, bai, estreinatzeko eta, batez ere, jendeak ikusteko. Guretzako gauza berria da, plataforma batentzat lan egiten dugun lehen aldia baita, eta ez dauka zerikusirik orain arte egin izan ditugun estreinaldiekin. Ikusiko dugu nola joaten den. Espero dut jendeari gustatzea", dio Arregik.

DISNEY+ PLATAFORMA

Balenciaga telesaila egiteko ideia Lourdes Iglesias gidoigile donostiarrarena izan zen. Honek Moriartikoei proposatu zien eta Disney+

"Perfekzionismo moduko bat zeukan Balenciagak. Dena kontrolpean eduki nahi izaten zuen eta horrek, askotan, sufrimendua eta frustrazioa eragiten zion."

Aitor Arregi
Zinemagilea

Ikusi
Balenciaga
telesailaren
teaser-a
hemen





Moriartiko Arregi eta Goenaga telesaillean Balenciagari bizia ematen dion Albero San Juan aktorearekin (Argk.: David Herranz)



Aitor Arregi
Zinemagilea

"Disney Plus-ek askatasuna eman digu prozesuaren zatirik handiengan eta, egia esan, Balenciaga telesaila geurea sentitzen dugu; identifikatuta ikusten dugu geure burua egindako lanean."

"Telesailaren ekoizpena oso luze joan da. Hiru urte izan dira ia. Hiru pelikula batera egitea bezalakoa izan da, bata bestearen ondoren, eta nik nahiago dut erritmo pausatuagoan lana egitea."



Telesailaren errodatareko une bat Parisen (Argk.: David Herranz)

plataformaren oniritzia jaso ondoren hasi ziren proiektua elkarrekin lantzen, hasieratik. "Bai, Disney-k askatasuna eman digu prozesuaren zatirik handiengan eta, egia esan, Balenciaga telesaila geurea sentitzen dugu; produkzioa beraia da, baina geure burua identifikatuta sentitzen dugu egindako lanean", dio Arregik.

Disney+ bezalako plataforma batentzat lana egiteak bere alde onak ditu, batez ere babes ekonomikoa bermatzen duelako; baina alde ez hain onak ere baditu, Arregiren ustez. "Nire iritzi pertsonala da, baina gu ez gaude ohituta azken hitza ez edukitzera. Kontrola edukitzea gustatzen zaigu —Balenciagari bezala—, eta zentzu horretan, adibidez, Donostiako Zinemaldian ez estreinatzekeo erabakia ez zitzaigun batere gustatu. Ilusio handia geneukan Donostian aurkezteko, eta horren inguruko erabakia Kaliforniako bulego batean hartu izanak... zapore txarra uzten dizu. Egia da halako plataformek lana bermatzen dizutela, baina nik nahiago dut orain arte bezala lana egitea; hau da finantziarioa geure aldetik lortzea, eta geuk edukitzea kontrol osoa".

Bestalde, Balenciaga telesailaren ekoizpena luzeegia egin zaiola ere aitortu digu zinegile oñatiarrak. "Hiru urte izan dira ia. Dimentsio handia da. Hiru pelikula batera egitea bezalakoa izan da, bata bestearen ondoren, eta nik nahiago dut erritmo pausatuagoan lana egitea".

Esan bezala, beraien hurrengo pelikula izango den Marco filmean murgilduta daude orain Moriartikoak. Flossenbürgen kontzentrazio esparrutik bizirik irten zela sinetsarazteko, bere biografiako datuek faldatu zituen Enric Marco sindikalista espainiarraren bizitzan oinarrituta dago. Errodajea amaitu dute eta urteko bigarren erdian estreinatuko da. Urte amaieran euskarazko pelikula berri bat errodatzen hasiko direla ere aurreratu digu Arregik.

Bien bitartean, Moriartikoen zigilua duen Balenciaga telesailaz gozatzeko aukera egongo da -ordainpeko plataforman soilik-; estiloa, moda, lana, diskrezioa, eskusibitate, gerra, superbibentzia, beldurra, traizioa, erresistentzia, Paris, Madril eta Getaria uztartzen dituen telesaila, horiek guztiek osatzen baitute Balenciaga misterioa. "Delicatessentxo bat", Arregiren hitzetan. ■

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
 - Lentzeria
 - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

bigga. studio

Kolaboratzaileak:

Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Oñatiko herrigunearen eta Elorregiren arteko autobus zerbitzua

Xabier Igartua Loidi (Oñatiko Udaleko zerbitzu batzordeburua. EH Bilduko zinegotzia)

Oñatiko EAJk herrigunearen eta Elorregiren artean Herribusaren linea gehigarri bat egiteko proposamena egin zuen 2024ko aurrekontuetan. Eta, ostean, komunikabideetara egin zuen jauzi proposamenak, Amaia Erostarbe EAJko bozeramaileak Goiena egunkarian duen zutabearen bitartez.

EAJko bozeramailearen hitzetan, “Pesak ematen du” Gipuzkoako autobus zerbitzua. Pesak ematen du? Ala, EAJk gobernatzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen du, Pesa edo gaur egun Avanzaren bidez? Zein esanguratsuak diren erabiltzen diren terminoak, eta erabiltzen ez direnak —oharrea ez da behin ere agertzen Gipuzkoako Foru Aldundia—.

Oñatiko herrigunea eta Elorregiren arteko autobus zerbitzua 2011-2015 legealdian jarri zuen martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak, EH Bilduk gobernatzen zuenean. Gero, legealdia bukatu eta gobernu EAJk eskuratu zuenean, desagertu egin zen. Esanguratsua, ezta? Eta orain, Oñatiko EAJren bozeramaileak, EAJk gobernatzen duen Foru Aldundiari beharrean, Oñatiko EH Bilduren udal gobernuari egiten dio eskaera. Zein garrantzitsua den testuingurutzeara...

Zilegi al da Oñatiko herritarrek 100.000 euro -kopuru hori proposatu du EAJk- ordaindu behar izatea Gipuzkoako garraio publikoari dagokion hutsune bat betetzeko? Ezetz esango nuke. Ez da zilegi, ezta bidezko ere.

Ez da lehen aldia Oñatiko Udala Gipuzkoako Foru Aldundiaren, edo Eusko Jaurlaritzaren, hutsuneak bete beharrean dela. Une batzuetan rol hori hartu dugu, eta hartzen dugu. Pandemia garaian argi ikusi zen, esaterako. Eta ez dugu arazorik, herritarren onerako bada, baina argi dugu ezin daitekeela sistematiko bihurtu, herriko aurrekontuak nabarmen baldintzatzea dakarrelako. Ezin dezakegu beti beste erakunde batzuek gaizki egindakoak zuzentzen jardun.

Debagoieneko udaletako ordezkariak -Oñati, barne- duela aste gutxi joan ziren Gipuzkoako Foru Aldundira garraio publikoan hobekuntzak eskatzera, izan ere, 2024an berrikusiko da lurraldeko autobus publiko zerbitzua. Beraz, orain da momentua. Gu bagabiltza garraio publikoan hobekuntzak exijitzen Gipuzkoako Foru Aldundiari. EAJ hasiko al da?

Elkar Heziko Ikas Komunitateak esker onez

Amaia Aranzeta, Arantza Arregi eta Iratxe Barruso

Lerro hauen bidez, abenduaren 16ko goizean, Oñatiko Plazan antolatu genuen azoka solidarioa hurbildu zineten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu. Iazko geldinean eta gero, ohitura zaharra berreskuratu eta ikasturtean zehar ikasleekin lantzen dugun elkartasunaren isla izan nahi duen ekintza berriro ere arrakastatsua izan zen. Hotz, Bubulum, Misio taldea, 7 udaberri, Gurutze Gorria, Bidezko merkataritza, Sahara Taldea, Erei, Ndak eta Mundu Solidarioko kideei eskerrik beroenak. Udalari ere emandako erraztasun guztiak aitortu eta hurrengo abenduan hantxe egongo garelakoan, Urte Berri zoriontsua!

KORRIKako Herri Batzordea eratzeko deialdia

Martxoaren 14an abiatuko da 23. KORRIKA Irundik, Euskal Herria zeharkatu ondoren Baionara iristeko hilaren 24an. Baina hori posible izan dadin herriz-herriko batzordeak eratu behar dira, tokian tokiko antolaketaz arduratzeko. Oñatin, **urtarrilaren 15ean** egingo da lehen bilera, Euskaldun Berria Gelan (18:00). KORRIKAn laguntzeko modu asko daude. Beraz, dei egiten zaie herritarrei, inolako konpromisorik gabe, bilerara joan daitezen, eta bertan ikusiko dute zein izan daitekeen laguntzeko bidea.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



BASUAN BARRENA, TXONDORRAN BUELTAN

90 bat estai-saku, 6-7 orbel-saka haundi, 80 bat lagun (haurrak zein helduak), ardo botila bat edo beste, jatordutako tertulixia, euri apur bat, lokatzaia, jakintzak elkarbanatu, garai bateko ikazkinen bizimoduan parte bat nolakua zan ikusi ta ikasi, pago-motzen eta geure basuen historia apur bat eta nundik norakuak... Hauxe dana eta gehixau da, motzian, **TXONDORRAN BUELTAN** egitasmean antolatutako lehen bi ekintzak emun daueina, baina batez be, giro earra eta goiz pasa earrak izan dia honi esker pasau ahal izan dunak.

Azaroko kontzejupetiken emun geben egitasmean berri eta, konturatu orduko, egitarauko lehenengo bi ekintzak burutu dittugu ia. Batetik, azaro bukaerako orbel eta estai-batze auzolana eta, bestetik, abenduko lehen zapatuko mendi-irteera eta ibilbidian zihar goiazela gozatu ahal izan geben hitzaldia.



A ze sorpresia! Bai batian zein bestian, parte hartzera animau ziñain herritar kopurua ikusi eta, “zoro kuadrilla” batek martxan jarritako egitasmuak erantzun earra euki dauela ikustian.

Baina bueno, hau hasi besterik ez da egin eta aurrerau be egongo da zer ikasi, zer elkarbanatu eta zertaz gozatu!

Hurrengo ekintzari dagokionian, **urtarrilan 9xan**, 19:00etan, TASIO filma ikusi ahal izango dogu Kultur etxeko zine aretuan.

Ikazkin baten bizitza, bere ingurukua eta garai jakin baten deskribapena egitten dauen filma da hauxe.

Ia ba hemendik aurrerakotan be jendia animaitten dan eta txondorgile kuadrillia haundituaz faten garien!

*Testua eta argazkixak:
Txondorran Bueltan
lantaldia*



Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- | | | |
|------------|-------------|---------------|
| ✓ Heriotza | ✓ Istripuak | ✓ Etxebizitza |
| ✓ Autoak | ✓ Ontziak | ✓ Aurrezkia |
| ✓ Bizitza | ✓ Osasuna | ✓ Laborantza |

Helbide: Motxon 5, behea
638 16 79 84

mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

DATU MUGA(RIK)GABEAK

Gabonetan lehen aldiz zure seme edo alaba nerabeari telefono mugikor bat oparitu badiozu, gailu horren erabilera egoki bat egin dezan erakusteko momentu paregabea zaudela esan behar dizugu.

Baina hori egin aurretik, begiratu ia zuk zeuk, edu guk, helduok, mugikorrarekin ditugun joerak eta erabilera mota, ez baitu hainbeste inporta seme-alabei esaten dizkiegunak, guk, heldu, hezitzaile edo guraso bezala, beraien aurrean egiten ditugunak baizik.

Askotan inkoherentzia handiak ditugu eta sarri entzuten dira haur eta gazteen ahotan "nire aita afaltzen mobilarekin egoten da...", eta ez diezaiozun elkarri gezurrik esan, gazte askok mugikorrarekiko duten adikzio mailaz hitz egiten da, baina arazoa oro har, gizartearena da, helduogandik hasita. Eta gazteak, nola ez, horren erakusle dira.



"Kontrol" hitzak baditu konnotazio negatiboak gizartean, baina kontrolak, batzuetan, bizitzak salbatzen ditu, kontrol-pean dagoen egoera batek arriskutik kanpo mantenduko baikaitu. Horregatik, guraso bezala, eskubide osoa duzue zuen seme-alabek oraindik erabiltzen ez dakiten gailu bat hartu eta zertan dabilzan ikusteko. Beste batzuren gurasoek horrelakorik egiten ez dutela ere entzungo duzue, baina, zuen seme-alaba kontrolik gabeko egoera batean agerian utziko zenukete? Gidatzen jakin gabe utziko zenioke?

Batzuetan gazteei hilabetea mugikorrean zenbat datu dituzten galdetzen diegu, eta batzuk "Datos ilimitados" edo "Datu Mugagabeak" dituztela esaten digute. Mugagabeak... mugarik gabeak? Ilimitados? Que no tiene límites? Hor dago gogoetarako lehen puntua.

Nerabezaroa autonomia lantzeko eta "soka askatzen" joateko garaia dela diote batzuk, eta hein batean ez zaie arrazoirik falta. Baina aldi berean, beraien garapenaren fase garrantzitsuenetako batean inoiz baino erreferentzia heldu, arau eta muga gehiago behar izaten dituzte. Badira guraso batzuk, beren seme-alabei auto-erregulatzeko konfiantza hori ematen dietenak, baina horrek ez du guztientzako balio, nerabezaroan horrek funtziona dezan, aurretik lan handia egin beharra baitago.

Zaila izaten da horrelako egoerak aurreikustea, askotan prebentzio lana kontabilizatzeko eta aurrera emateko nekeza baita, eta aitor dezagun, horregatik uzten joaten garen gai bat izaten da;

baina... zure seme-alaba mugikorrekin jazarpena jasaten ari bada? Edo erasotzailea bada? edo konplizea? Edo pornoa ikusten badu? Eta hori guztia normalizatzen badu?

Ez dezagun gero "ez neben hau nire alabiangandik espero" edo "ez neben holakorik Oñatin pasaiten zianik pentzaiten" esan.

Hori guztia gertatzen ari baita, besteak beste, Oñatin ere. Gure seme-alaben, gazteen mugikorrean, eta orain bertan gertatzen ari da.

Ez ditzagun eskuak burura eramane, baina egin dezagun lan prebentzioan, bakoitzak bere etxetik hasita, gerora sortzen diren gatazka edota minak murriztu daitezen.

Mugak jar ditzagun, zaindu ditzagun.

Iñigo Ugarte Inza

Oñatiko Gaztelekuko lantaldea

Haur eta Gazteriako AGENDA

URTARRILA

2 Jolas kooperatiboak + paratxuta
+ eraikuntza jolasak. 11etatik aurrera, Ludotekan.

3 Naturarekin esperimentatzen.
11etatik aurrera, Ludotekan.

Kontzertuak

URTARRILA

27 The Chevelles + Ezpalak.
22:00etan, Gaztelekuan.
Sarrera 12€ (10€ aurrez).

Rich Flu pelikularen soinu bandan parte hartu du Ganbara Abesbatzak

Galder Gaztelu-Urrutiak zuzendutako thriller distopikoa da *Rich Flu*, urtean gehien espero den produkzioetako bat

Filmetako soinu bandei ahotsa jartzen espezializatzen hasi da Ganbara Abesbatza. 2022an Paul Urkijoren *Irati* pelikulan parte hartu zuen eta bukatu berri den urtean Galder Gaztelu-Urrutia (Bilbo, 1974) zinegile bizkaitarraren *Rich Flu* filmerako soinu bandan parte hartu du Aitor Biain-Bidartek zuzentzen duen abesbatzak.

Urkijoren pelikulan bezalaxe, *Rich Flu* filmerako musika ere Arantzazu Calleja musikagile bilbotarrak sortu du, eta honek Ganbara Abesbatzarengan jarri du konfiantza beste behin, ahotsa jartzeko. Guztira 10 pieza grabatu dituzte Gaztelu-Urrutiaren pelikularako. Azaroan eta abenduan egin zituzten grabaketak Elkar-en estudioan; lan-jardun gogorak izan ziren, baina emaitza ikaragarria izan dela aurreratu digu Aitor Biainek, Ganbara abesbatzako zuzendariak. "Era honetako lanek gure ohikotasunetik ateratzen bagaituzte ere, esperientzia bikainak izan dira taldearentzat. Grabaketa prozesu osoan pelikularako zuzendariarekin eta konposatzailearekin batera lan egitea oso interesgarria eta aberasgarria izan da".

Gainera, lan honek beste ate batzuk ere zabalduko dizkio Ganbara Abesbatzari eta, dagoeneko, jakin badakigu datozen hilabeteetan beste pelikula ezagun batean ere parte hartuko duela Oñatiko abesbatzak, Ana Calleja konposatzailearen eskutik. Musikagile bilbotarrak Goya saria irabazi zuen *Akelarre* (Pablo Agüero, 2020) pelikularako musikagatik.



Aitor Biain eta Ana Calleja konposatzailea



Ganbara Abesbatzako kideak *Rich Flu* pelikularako zuzendari eta lantaldeko kideekin grabazio saioan

Thriller distopiko eta postapokaliptikoa



Galder Gaztelu-Urrutia

Thriller distopiko eta postapokaliptikoa bat da *Rich Flu* filma, jende aberatsari bakarrik eragiten dion gaixotasun berri bat buruz hitz egiten duena. Birus hilgarri horrek planetako pertsonarik aberats eta eragingarrienetako batzuk hiltzen ditu, eta berehala zabalduko da izua herritarren artean. Lehenik milioiudunei erasaten die gaitzak, ondoren aberatsei eta, horrela, hurrenez hurren... Gero, nolabaiteko aberastasuna duen edonor kolpatzeko mehatxua egiten du birusak. Orduan, mundu guztia izututa, jendea bere aktiboak kentzen saiatzen da, baina, jada, ez ditu inork nahi. Aberastasuna bere ondasunik arriskutsuena bihurtzen denean, jendea bere burua salbatzeko noraino iristeko gai den aztertzen duen istorioa da.

Gogoratu, Galder Gaztelu-Urrutiak sekulako arrakasta lortu zuela bere opera primarekin (*El hoyo*, 2019). *Rich Flu* pelikula ekoizpen espainiar-txiletarra da eta aurtengorako gehien espero den ekoizpenetako bat da.



Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiausti Kortabarria
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

**ERAKUSLEIHO LEHIAKETA**

Andrea Azkoaga Interioristarentzat izan da XVI. erakusleio lehiaketako sari nagusia (500€). Bigarren saria (300€) **Barue** Interiorismoak eraman du eta hirugarrena (200€) **Oreka** Reforma eta Interiorismok. Herritarren saria (500€) **Kimu-Urtxin** lora dendarentzat izan da eta Haurren saria (500€) **Trikitx** paper eta jostailu dendarentzat.

OÑATIKO ESPERIENTZIA GELA

Gabonetako jai egunen ostean, ohiko jardunari helduko dio Oñatiko Esperientzia Gelak, eta urtarilerako bina hitzaldi eta irteera-ibilaldi antolatu ditu Goienagusirekin elkarlanean.

HITZALDIA: 'KLIMA ALDAKETA. BADAIGU EZ DELA NATURALA. ZERGATIK?' URTARRILAK 17 / SANTA ANA ANTZOKIA 10:00

Jon Saenz fisikari bilbotarrak klima aldaketa, meteorologia eta ozeanoen eta atmosferaren arteko loturak ikertu ohi ditu, eta aldaketa klimatikoaren atzean dauden arrazoi fisikoez hitz egingo du. Hitzaldia hasi aurretik (9:30) kafea zerbitzatuko da Santa Anako sarreran.



BISITA GIDATUA: 'GOMIZTEGI ETA ARANTZAZUKO SANTUTEGIA' URTARRILAK 18 / 10:00

Gomiztegin hasiko da bisita (10:00). Artzain-txakurren erakustaldia eta gazta nahiz txakolin dastaketak izango dituzte. Ondoren, Arantzazuko eraikuntzan parte hartu zuten artisten lana ezagutzeko bisita gidatua (12:00) egingo dute. Joan-etorriak norbere kontura. Prezioa, 12€ (urtarrilaren 8tik 15era eman behar da izena).

IBILALDIA: 'MENDI IBILALDIA ARANTZAZU AUZOAN ZEHAR' URTARRILAK 25 / 9:30

Ibilaldi zirkularra. Kortakogainetik abiatuta (9:30), Iritegiko surjentziak, Akuegiko errota eta ura Olateko zentralera nola bideratzen den ikusteko aukera egongo da. Guztira, 9km. inguruko ibilaldia, 3 ordutan egitekoa. Amaieran mokadutxo Arantzazuko auzo-etxean. Joan-etorria norbere kontura.

HITZALDIA: 'COMER BIEN: SALUD, BIENESTAR Y CALIDAD DE VIDA' URTARRILAK 31 / SANTA ANA ANTZOKIAN 10:00

Nutrizio gaietan aditua den Silvia Zuluaga mediku-dietistak hitzaldi praktikoa eskainiko du. Egoki elikatzen irakatsiko digu, gure osasuna, gure ongizatea eta gure bizi-kalitatea mantendu edo hobetu ahal izateko. Hitzaldia hasi aurretik (9:30) kafea zerbitzatuko da Santa Anako sarreran.



Esker ona adierazteko luntxa Elkar Hezin

22-23 ikasturtean HH2ko matrikulazio prozesuak eragindako egoeran eskolako familiek eta herritarrek erakutsitako babesa eta gertutasuna eskertzeko ekitaldia antolatu du Elkar Hezi ikastetxeak. Gogoratu, besteak beste giza-katea egin zutela ikastetxea eta herriko plaza lotuz. Azkenean, bide luze eta lan handiaren ostean, normaltasunez hasi zuten 23-24 kurtsoa, HH2ko gela zabalik.

Urtarrilaren 19an egingo dute esker oneko ekitaldia: **16:30** Txokolate jana haurrentzat; **17:15** Yogurinha Borovaren *Amona Molona* diska berriaren ikuskitza; **18:30** Guraso eta herritarrentzako luntxa eta haurrentzako tailerrak.

Boluntariotza saria, Asun Arzuagarentzat

Pake Leku elkarteak ematen duen Boluntariotza Saria Asun Arzuagarentzat izan da aurten. Herrigintzan, gai sozialetan eta boluntario lanetan nabarmendu diren herritarren jarduna aitortu eta txalotzea da sariaren helburua. Arzuagak ia 20 urte daramatza Pake Lekuko antzerki taldea zuzentzen, eta puntu-lanen tailerra ere gidatzen du.

Urte askotan zuekin

☎ 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI



bapo baskehouse**Ekintzailea:** Arantxa Egoskozabal**Helbidea:** Lezesarri, 18**Telefonoa:** 665 701 029**Emaila:** bapobaskehouse@gmail.com**Sare sozialak:** @bapobaskehouse

"Jasangarritasunaren aldeko apustua egin dut. Osagai ia guztiak naturalak eta bertakoak dira, eta obradorerako energia eguzkitik lortzen dut"



Errekalde dendan eta Tarsicio harategian eros daitezke BAPO produktuak paketat. Otamendi tabernan banaka ere eskura daitezke.

Ekintzaileei eskainitako txoko honetan Arantxa Egoskozabalek abian jarri duen 'BAPO baskehouse' enpresa aurkezten dizuegu. Artisau eran eta bertako osagai naturalez egindako gailetak, madalenak eta ogia eskaintzen du BAPOk.

Nondik nora sortzen da BAPO? Betidanik gustatu izan zait gozogintza. Pandemia aurretik ikastaro batzuk egin nituen, ogia modu ekologikoan egiten ikasteko asmoz, eta ogia ez ezik, gailetak eta bestelako produktuak egiten ere ikasi nuen. Handik aurrera, nire probatxoak egiten hasi nintzen, *hobby* moduan, etxerako. Inguruko en artean banatzen hasi nintzen, oso goxoak zeudela esaten zidaten eta, halaxe, poliki poliki, animatuz joan naiz. Foru Aldundiaren 'Emekin', emakume ekintzaileei laguntzeko programaren bitartez bideragarritasun azterketa egin nuen, eta aukerak neuzkala ikusita, etxeko biltegian obradorea prestatu eta aurrera egitea erabaki dut. Enpresa bat sortu eta martxan jartzeko formazioa ere jaso dut. Ez da samurra halako proiektu bat aurrera ateratzea, baina gogotsu eta ilusioz nago.

Zer da BAPO? Ze produktu eskaintzen duzu? Obradore txiki bat da eta, batez ere, gailetak, madalenak eta ogia egiten ditut. Gurinez egindako gailetak dira, eta bariante ezberdinak ditut: almendrarekin, mermeladarekin eta txokolatearekin. Eta madalenak ere berdin, aldagaiekin: txokolatearekin, arandano edo ahabiarekin... Ogia ama-orearekin egiten dut, moldekora ere bai, eta baita zerealekin ere. Orain, Gabonetan, errege-opilak ere egiten ditut, enkarguz (Errekalde dendan).

Ze berezitasun dute BAPO produktuek? Eskuz, artisau eran egindakoak dira, eta erabiltzen ditudan osagai guztiak edo gehientsuenak naturalak eta bertakoak dira. Hasieratik garbi eduki dut proiektu jasangarri bat egin nahi nuela, bertakoa, eta ildo horretan, obradoreak behar duen energia ere eguzki plaken bidez lortzen dut.

Non eskura daitezke zure produktuak?

Paketea nahi izanez gero, Errekalde dendan eta Tarsicio harategian. Hondarribiako *Endanea Garden* zentroan ere saltzen ditut. Bestalde, herrian antolatzen diren azoka ezberdinetan ere egoten naiz (martxoaren 8koa, Herri Eguna, Gabonetako artisau azoka...) eta urtariletik aurrera Oñatiko larunbatetako azokan saltzen hasteko asmoa daukat. Otamendi tabernan ere saltzen dituzte, banaka.

Laguntzarik izan al duzu proiektua martxan jartzeko?

Bai, Oñatiko udalaren eta Lanbide-ren dirulaguntzak, enpresa berria sortzeagatik, 'Emekin'-en aholkularitza, eta Eusko Jaurlaritzako 'Lehiatu Berria' —landa eremuan enpresak abian jartzeko egindako inbertsioei aurre egiteko laguntza— programakoa ere bai.

MENDI IRTEERA / Urtarrilak 21**TOLOÑO MENDIKATEA**

Pto. HERRERA-TOLOÑO (1264m.)-LABASTIDA



Aloña Mendik urte berrirako antolatu duen lehen mendi ibilaldia Toloño mendilerroan izango da. Herrera mendatean abiatuta, Araba eta Errioxa batzen dituen mendikatea zeharkatuko dute, gainik-gain, Labastidaraino jeitsiz. Guztira, 17km.-ko ibilaldia (+700m.), 6 ordu ingurutan egiteko modukoa. Ez du batere zailtasunik Bukaeran, urtea ondo hasteko, bazkaria egingo dute Labastidan.

Irteera urtarrilaren 21ean izango da, goizeko 7etan, postetxe parean. Izena emateko azken eguna: urtarrilak 18, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com

MENDI IRTEEREN EGUTEGIA - 2024

Urtarrilak 21 . . .	Herrera - Toloño - Labastida
Urtarrila *	Eski travesia
Otsailak 18	Ordunte: Balmaseda - Koltza
Martxoak 17 . . .	Lokiz: Galdeano - Lokiz - Baríndano
Martxoak *	Eski travesia
Apirilak 21	Otzaurte - Aitzkorri - Arantzazu
Maiatzak 19 . . .	Petilla de Aragón - Sos del Rey Católico
Ekainak 16	Aralar: Guardetxe - Ganbo - Larraitx
Uztailak 20-21	Saint Lary - Pic Bastan - La Mongie
Urriak 20	Demanda:
	Valdezcaray - San Lorenzo - Valvanera
Azaroak 17	Oñatiko mugarriak :
	Andarto - San Prudentzio
Abenduak 15 . . .	Urbasa: Bargagain - Santa Marina - Lizarraga

* Data zehazteke

Aimar Madina, Gipuzkoako txapeldun**ZIKLO-KROSA**

Caja Rural taldeko txirrindulari oñatiarrak abendua-ren 10ean Seguran jokatu zen Gipuzkoako ziklo-kros txapelketa irabazi zuen. Elite eta 23 azpikoen lasterketan 5. postuan helmugaratu zen —bigarrena izan zen 23 urte azpikoen kategorian—, baina Gipuzkoako lehengo.



Argk.: Unai Demi



WALKING FOOTBALL Real Sociedad Fundazioak Walking Football proiektua jarri zuen abian iaz, 55 urtetik gorako gizon-emakumeei zuzenduta, eta argazkian ikusten den moduan, hainbat oñatiar ari dira parte hartzen. Futbol modalitate berezia da; oinez jokatu behar da —ezin da korrika egin— eta baloia ezin da gerritik gora altxatu.

Ate Irekiak fitness ekintzetan, urtarrilaren 8tik 12ra

FITNESS Zubikoa kiroldegiko fitness ekintzetan ATE IREKIAK antolatu dituzte urtarrilaren 8tik 12ra. Kiroldegian eskaintzen dituzten jarduera edo ekintza ezberdinak (Fit bike, Krossfit, TRX, Body Pump, Gimnasia terapeutikoa...) probatzeko aukera egongo da. Informazioa eta izen-ematea, kiroldegiko harreraren.

► **PILATES HASTAPENA.** Urtarrilaren 4, 11, 18 eta 25ean (17:15-19:15) hastapen mailako Pilates ikastaroa eskainiko du Zubikoa kiroldegia.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK****LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK****MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

GIGAK PARTEKATUZ

AURREZTEKO TARIFA



FIBRA 500Mb

+ **MUGIKORRA 50GB**

+ **DEI MUGAGABEEKIN**

39,90€ /HIL

+ **MUGIKOR LINEA GEHIGARRI
BAKOITZA 5€-TIK AURRERA**

+ **AGILE TELEBISTA 6€/HIL**

KONTRATATU HEMEN:

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



BEZ baina. Doako instalazioa. Iraupena 3 hilabete. Kontsultatu gainerako baldintzak salmenta puntuan.

MÁSMÓVIL

AHORRA, SIN MÁS

TOP ZARTZUELA



>> **Bost zartzuela** ezagunetako musika entzun ahal izango da musika bandaren kontzertuan, **urtarrilaren 6an**

>> **Camden Town Studio**ko dantzariak eta **Ganbara Abesbatzako** bi bakarlarik ere parte hartuko dute

Musika estilo ezberdinak jorratu eta publiko berriarengana iristeko ahaleginean, zartzuela izango da musika bandaren denboraldiko bigarren kontzertuko protagonista. Musika eta antzerkia uztartzen dituen generoa da zartzuela, eta, kasu honetan, XIX. mende bukaera eta XX.aren hasieran estreinatutako bost obra ezagunetako doinuak eskainiko ditu musika bandak Aitor Biain-Bidarteren zuzendaritzapean.

GONBIDATU BEREZIAK

Kontzertu berezi honetarako gonbidatu bereziak izango ditu musika bandak, Ganbara Abesbatzako bi bakarlarik (Cristina Cubillo eta Aitor Garitano) eta Candem Town Studio-ko dantzariak ere parte hartuko baitute emanaldian, beraien ahots eta dantzeekin zartzueletako melodiak osatu eta edertuz. Aukera paregabea, zartzuela generoa gustuko duten edota deskubritu nahi duten pertsonentzat. Ordubate eskaseko kontzertu dinamiko eta alaia izango da. Emanaldia borobiltzeko eta urte berriaren hasieran gaudela kontuan hartuz, **Radetzky** martxa eskainiko du musika bandak. Ohi bezala, Zubikoa pilotalekuan izango da kontzertua (13:00etan). Dohainik da, baina sarrera eskuratu behar da Txokolaiteixan.

'TOP ZARTZUELA' Obrak eta Egileak

- *El tambor de Granaderos* -Obertura-.....(R. Chapí)
- *Gigantes y cabezudos*.....(M. Fernando Caballero)
- *La canción del olvido* -Olvido-(J. Serrano)
- *Katuska*.....(P. Sorozaabal)
- *La boda de Luis Alonso*.....(J. Gimenez)



Makilakixki ipuin-CDa argitaratu du Ganbara Kantu Eskolak



'Oñatiko Ipuinak' proiektuaren baitan **Makilakixki** ipuin herrikoia moldatu eta musikatu du Ganbara Txiki abesbatzak ipuin-CD formatuan eskaintzeko, Josu Elberdinek propio sortutako musikarekin eta Jabier Erostarberen ilustrazioekin. Amaia Zipitria pianoroleak eta Miel Guridi narratzaileak ere parte hartu dute, Aitor Biainen zuzendaritzapean. Txokolateixan eta www.ganbarafaktoria.eus webgunean eskura daiteke (10€).



Ipuineko ilustrazioak Jabier Erostarberenak dira



Akordeoi lehiaketan sarituak

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasle loanes Igartua, Laia Umerez, Haizea Idigoras eta Ane Zulueta Arrasateko XXXV. Akordeoi Jaialdian parte hartu zuten abenduaren 9an eta urrezko domina bat eta zilarrezko hiru lortu zituzten. Gainera, eta horixe da garrantzitsuenak, asko disfrutatu zuten eta pozik itzuli ziren. Baita beraien irakasle Arantxa Iturrioz eta Arantzazu Bikuña ere.

HERRIAK HERRIARENTZAKO BANDA

Oñatiko musika bandaren **etorkizuna bermatzeko** asmoz sortutako proiektua da 'Herriak Herriarentzako Banda'. Bi deialdi egin dituzte oraingoa.



1. Eman 2. bizitza etxean dutzen instrumentuari

Deialdi honen helburua da etxean erabiltzen ez diren instrumentu zaharrei beste erabilpen bat ematea, bandan jotzen hasten diren gaztetxoendako oso baliagarria eta lagungarria izan daitekeelako. Beraz, etxean musika instrumentu zaharren bat baldin badaukazu garbaran gordeta, hautsa batzen, emaiouzu bigarren bizitza bat, bandak formakuntzan dituen gazteek berrerabili ahal izango dute eta. Bandako arduradunekin harremanetan jartzeko: oinatikomusikabanda@gmail.com



Azaroko kontzertuan estreinaldi ofiziala egin zuten musika bandarekin Uxue Igartuak (bonbardinoa), Lier Esnaolak (perkusioa) eta Julen Arrazolak (klarinetea)

2. Instrumentuak ber-hartzeko deialdia

Musika bandaren etorkizuna bermatzeko harrobia landu behar da, eta horretan dihardute Oñatiko musika eskolarekin elkarlanean, bandan falta dituzten instrumentuak indartzeko asmoz. Banda Gaztea sortu izana ere, helburu horrekin emandako beste urrats bat da. Baina, oraingo honetan, perfil nagusiko (ez haurrak) jendea animatu nahi dute instrumentuak ber-hartzera. Aurrez haize-instrumenturen bat jo duten herritarrak animatu egin nahi dituzte musika tresnak ber-hartzera, edo beste instrumentu hauetakoren bat ikastera: **oboea, tronpa, klarinetea, tuba, fagota, bonbardinoa...** Bandako kideek lagunduko diete formakuntzan, eta lehendik duten musikako ezagutzarekin, erraz ikasiko dute. Entseguak astelehen eta asteazkenetan izaten dira, eta estilo ezberdinetako erreperitorioak lantzen dira. Animatu!


ARRIZABALAGA
Aroztegia


PAKITA
Altzariak

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

 **ZURICH**

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



Mila Modu taldearen disko berria **KENOPSIA**

90.eko hamarkadako rock/pop doinuak dira nagusi lan berrian, baina sintetizadore eta teklatuak baliatuz, erregistro berriak ere jorratu dituzte



Mila Modu talde oñatiarrak **Kenopsia** diskoa plazaratu du, beraien hirugarren estudio-lana, **Absurdoaren paradisia** (Elkar, 2020) eta **Intra** (Elkar, 2022) diskoen ostean. Aurrekoetan bezala, 90. hamarkadako soinu gitarra-roak dira nagusi lan berrian, baina sintetizadore eta teklatuak baliatuz erregistro berriak ere jorratu dituzte, abesti koloretsuagoak, freskoagoak eta potenteagoak sortuz. Victor Sanchezen gidaritzapean grabatu dute diskoa.

Hor Konpon taldeko kantari ohi Xabier Yanizek 2019an sortutako taldea da *Mila Modu*, eta ohiko taldekideez gain (Andoni Campos, Oscar Arlanzon eta Rober Ferreiro) Miren Fernandezek (teklatura eta sintetizadoreak) ere parte hartu du **Kenopsia** diskoan. Bideoklip bat ere grabatu du taldeak (Oier Yanizen irudiak) 'Une batez Kenopsia' kantarekin (youtu.be/_wdDbDKaJnE).

OTSAILAREN 4AN GAZTELEKUAN

Otsailaren 4an entzun ahal izango dugu zuzenean Mila Modu taldearen **Kenopsia** disko berria, Gaztelekuak antolatzen dituen *Matinee* kontzertu egitarauaren baitan, 12:00etan.

Pake Lekuko Aloña abesbatza Gipuzkoako koruen topaketan izan da



AGIJUPENS, Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunen elkarteak antolatuta, abenduaren 11, 12 eta 13an Oiartzunen ospatu zen abesbatzen topaketan parte hartu zuen Pake Lekuko 'Aloña' abesbatzak. Ainhua Galdosek zuzenduta *Arkume eta Gaztakin*, *Gabon dut anuntzio*, *Biok ezagutzean* eta *Los amigos* abestu zituzten maisuki.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net f i



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



ENCUENTROS

Txuleton's taldearen bigarren lana kalean

Rock, pop eta new wave estiloko
9 kanta dakar disko berriak



Aker, Arrano, Boga eta
Eltzian dago salgai 10€-tan

TXULETON'S taldeak 27 urte daramatza musika egiten eta musikaz gozatzen, hasierako formazio originala osorik mantenduz, gainera —Jabi Egaña (ahotsa eta saxoa), Karmelo Alberdi (gitarra), Fernando Mugarza (baxua), Xabier Arregi (bateria), Roberto Zabarte (gitarra) eta Sven Linnenbrugger (teklatura)—. Ibilbide luze horretan, baina, disko bi baino ez ditu plazaratu; lehenengoa orain dela 22 urte (*Ya es tarde*, 2001), eta berriki beraien bigarren diskoa aurkeztu dute, *Encuentros* izenekoa.

Bederatzi kanta grabatu dituzte lan berrian —*Aukerie*, *Dinamikoki*, *Ez pentsa*, *Correr*, *Joxe*, *Encuentros*, *Por culpa de ti*, *Ye ye ye* eta *Diagnostico*—, aurreneko hirurak euskaraz, eta gainerakoak gazteleraz. *Rock*, *pop* eta *new wave* estiloko abestiak dira, kutsu nostalgiko-existenzialista duten letrekin, alde batera utzi gabe taldearen betiko tonu umoretsua.

Aker, Arrano, Boga eta Eltzia tabernetan dago salgai diskoa, eta Interneten ere (Spotify, Youtube, Bandcamp...) entzungai dago.

Ongizate emozionala familian

Mindfulness praktikaren onurak haurdunaldian hasita

TAILERRA Mindfulness-aren praktikara hurbiltzea da urtarrilaren 16an Elkar Heziko Behebarruan (18:00-20:00) egingo den tailerraren helburua. Interesa duten herritar guztiei irekitako saioa izango da.

Ikerketek iradokitzen dute mindfulnessa praktikatzek haurdunei estresa gutxitzen eta animoari eusten laguntzen diela, eta onura horiek haurtxo osasuntsuagoak eta jaio ondoren garapen-arazo gutxiago dituztenak ekartzen lagun dezakete. Amarentzako eta haurarentzako ez ezik, bikotearentzako ere onuragarria eta aberasgarria da praktika hau.

Hazkunde pertsonalerako tailerra

Formakuntza praktikoa eta teorikoa

TAILERRA Oñatiko Yoga Eskolako irakasle eta hazkunde pertsonaleko orientatzaile diren Maite eta Lurdesek emango dute tailerra. Formazio praktikoa eta teorikoa eskainiko dute.

ZERTARAKO BALIO DU TAILERRAK? Nolakoa zaren jakiteko, kontzientzia hartzeko eta, modu horretan, nagikeria gainditzeko. Konfort gutetik irteteko. Oraina bizitzeko. Zure bizitza kudeatzen jakiteko, ezagutzarekin hobetzeko eta nork bere burua ezagutu eta onartzeko.

Hilean saio bat egingo da, larunbatetan (9:00-13:00), urtarilaren 20an hasita, Oñatiko Yoga Eskolan (Bidebarrieta 28). Prezioa: 60€ (Oñatiko Yoga Eskolako ikasleek 50€). Informazioa gehiago: 658 719 086 / lourdescidlopez63@gmail.com.



onabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan

ERAKUSKETAK

URTARRIL. 22-OTSAILAK 3 / 18:00-20:00
'HABITAT. Euskaldunen historia mapen bitartez'Nabarraldeak antolatuta. Urtarrilaren 22an bisita gidatua, Beñi Agirreren eskutik (18:30). [Kultur etxean](#)

HITZALDIAK

URTARRILAK 17 / 10:00
'KLIMA ALDAKETA. BADAIGU EZ DELA NATURALA. ZERGATIK?'Esperientzien Gelak antolatuta. Hizlaria: Jon Saenz, fisikaria. [Santa Ana aretoa](#)**URTARRILAK 17 / 18:00**
'KIROLA, INDARKERIA ETA GIZONTASUNA'Mahai-ingurua. Jabetze Eskolaren eskutik. [Kultur etxean](#)**URTARRILAK 23 / 18:00**
'EZAGUTU NAGUSILAN'Hizlaria: Nagusilan. [Pake Leku](#)**URTARRILAK 23 / 19:00**
'ORREAGA. Estatu nafarraren sorrera'Hizlaria: Xabier Irujo [Kultur etxean](#)**URTARRILAK 30 / 19:00**
'GAZTELUAITZEN GARAIA. Estatu nafarraren gorena'Hizlaria: Iñaki Sagredo [Kultur etxean](#)**URTARRILAK 31 / 10:00**
'COMER BIEN: SALUD, BIENESTAR Y CALIDAD DE VIDA'Esperientzien Gelak antolatuta. Hizlaria: Silvia Zuluaga, medikua. [Santa Ana aretoa](#)

LIBURU AURKEZPENA

URTARRILAK 10 /
'GORA EUSKAL HERRIENTSAK'Kulturaren transmisioan aitzindari izan zen emakume kolektiboaren omenez argitaratu berri duen liburua aurkeztuko du Asisko Urmenetak [Antixena Gaztetxean](#)

ZINEA

URTARRILAK 9 / 19:00
'TASIO''Txondorran bueltan' lantaldeak antolatuta, [Kultur etxeko zine aretoan](#)

BERTSO JAIALDIA

URTARRILAK 5, OSTIRALA
ZUBIKOA KIROLDEGAN, 22:30
SARRERA: 10€ (-12 urte doan)

Errege bezperako bertso-saioa. Bertsolariak: Andoni Egaña, Alaia Martin, Aitor Tatiegi, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. Gai-jartzailea: Txinparta bertso eskola



ANTZERKIA

URTARRILAK 21, IGANDEA
SANTA ANA ARETOAN, 17:00

'Loti ederrak' ipuin klasikoaren antzerkirako egokitza penak, Glu Glu taldearen eskutik. Adin gomendatua: 3-12 urte eta familiak. Gaurkotasuneko gai bat jorratzen du: haur zein nerabeen sare sozialekiko menpekotasuna edo esklabotza.

IRTEERA-BISITA GIDATUAK

URTARRILAK 18 / 10:00
'GOMIZTEGI ETA ARANTZAZUKO SANTUTEGIA'

Goienagusik antolatuta, Esperientzien Gelaren baitan.

URTARRILAK 25 / 9:30
'MENDI IBILALDIA ARANTZAZU AUZOAN ZEHA'

Goienagusik antolatuta, Esperientzien Gelaren baitan. Kortakogainen hasi eta amaitu (9km inguru.). Erraza.

KOMIKIGINTZA

Tertulixan saio berezia

URTARRILAK 16 / 18:30Udal liburutegiko 'Komikia Tertulixan' saioan *El diablo y el señor Twain* komikiaren idazleak eta ilustratzaileak (Koldo Azpitarte eta Mikel Bao) parte hartuko dute. Saio irekia izango da interesa duten guztientzat.**URTARRILAK 26 /**
'BALMASEDA'

Kultura eta natura. Pake Lekuk antolatuta.

URTARRILAK 28 / 9:00
'GAZTELUAITZERA IBILALDIA'

Nabarraldeak antolatuta. Sindika ostatu aurretik irten eta Bellotzatik bueltatu.

KONTZERTUAK

URTARRILAK 6 / 13:00
TOP ZARZUELAMusika bandaren kontzertua [Zubikoa](#) pilotalekuan**URTARRILAK 12 / 22:00**
TXOPET + NAKARSarrera arrunta 8€ (prezio murriztua 3€) [Antixena Gaztetxean](#)**URTARRILAK 20 / 19:00****OSABA KIMU+ASTELEHEN GOIZAK**Burrunda Faktoriak antolatuta [Antixena](#) gaztetxean**URTARRILAK 27 / 22:00****THE CHEVELLES + EZPALAK**Australia eta Zestoako rock taldeak (12€/10€ aurrezsalmentan) [Gaztelekuan](#)

'DOROTEA'

Ipuin kontaketa eta collage tailerra

OTSAILAK 1, HAUR
LIBURUTEGIAN, 18:00



Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan, Amaia Egidazu ipuin kontalari durangarraren saioa egongo da Haur liburutegian, kultura eta natura, tradizioa eta traizioa dotore biltzen dituen 'Dorotea' albumean oinarrituta. Gonbidapenak urtarrilaren 22tik aurrera eskuratu ahal izango dira udal liburutegian.

IPUIN KONTAKETA MUSIKATUA

URTARRILAK 28,
GAZTETXEAN, 17:00



Burrunda Faktoriak haur eta gaztetxoei zuzendutako saioa antolatu du, **Ameli Ipuinen Jostune** taldearen eskutik. Ipuin kontaketa musikatua, eskulanak eta merienda egongo dira.



LIBURUTEGIA

Hileko gomendioa

Kontzentratzeko geroz eta zailtasun handiagoak ditugu. Hiperaktibitatea, informazio gehiegi, infokizazioak jota bizi gara. Ezaguna egingo zaizu antsietatez bizi diren harremanez kontatzen direnak, haurren heziketan kontsumo azkarrak duen eraginaz, plazera eta desioaren gehiegizko estimulazioaz.... Arretaren kolapsoa eta presentziaren krisia zer diren ez badakizu, liburu hau irakurri beharko zenuke.

ZINEA



ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusia: Ostirala (22:00), larunbata (22:00), igandea (19:30 eta 22:00) eta astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Urtarrilak 4 - 8

ZINE KLUBA:
Creatura
NAGUSIAK:
Wonka
HAURRAK:
Wonka



Urtarrilak 11 - 15

ZINE KLUBA:
El viejo roble
NAGUSIAK:
Anatomía de una caída
HAURRAK:
Teddy, la magia de la navidad



Cannes-eko
Sari nagusia

Urtarrilak 18 - 22

ZINE KLUBA:
Fallen leaves
NAGUSIAK:
Los que se quedan
HAURRAK:
Migrazio bidaia ahaztezina



Urtarrilak 25 - 28

ZINE KLUBA:
A fuego lento
NAGUSIAK:
Yo, capitán
HAURRAK:
El arca de Noé



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
URTARRILAK 2, 10, 11, 19, 20, 21, 29 eta 30. OTSAILAK 7 eta 8.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
URTARRILAK 3, 4, 12, 13, 14, 22, 23 eta 31. OTSAILAK 1.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
URTARRILAK 1, 5, 6, 7, 15, 16, 24 eta 25. OTSAILAK 2, 3 eta 4.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
ABENDUAK 8, 9, 17, 18, 26, 27 eta 28. OTSAILAK 5 eta 6.



MERKATU TXIKIA

ORTU SAILA SALGAI Jaumendi azpiko lursailetan kokatuta dagoen ortu saila (200 m2) salgai. Prezioa negoziatu daiteke. Deitu: 943780526 / 943782559.

MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72

ODOL ATERALDIA

URTARRILAK 19 / 16:30-20:30
MU-ko Enpresagintza fakultatean.
Hitzordua hartzeko: **943007884**

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati



>> URRUSULAKO KONTUAK (IV)

Oñatin argixa ifiñi zanekea

Urrusulako auzotarrak hartu-emun estua ekuain abadiarekin eta eliziarekin, eta abadiari betik errespeto haundixa eukitten xakon, bera zan 'auzoko gizon jakintsua', eta domeketan meza ondoren urteten eben arkupea edo elizako aterpera, eta geldiketan zan gizonakin berba egitteko. Emakumiak, denpora hartan, ba, etxera, bazkeixa gertaketara edo umiak atendittera edo egin bihar zana egittera. Eta abadiak kontaitten ei eben, ba, astian zihar ze gauza pasau ziran kalia edo beste nunbaiten. Berak bakarrik hartzen eben periodikua. Egun baten baserritar bat bajaitten zanian kalera igoten otsan barripapela, irakurten eben dana, eta gero domekan baeukan zer kontatua.

Eta domeka baten Oñatin argixa ifiñi zaneke kontuaz jardun eta gero, haxe pasau zan:

San Migel batzuetan ei zan, eta abadia eta berarekin bizi zan mutikua bajau ziran kalera argi elektrikuaren inauguraziñua ikustera, hau da, kaleko argi barrixak ikustera. San Migel egun bat izan bihar zan edo fiestetan, behintzat. Eta gaba zanez, illundu eta gero, ba, lo egin euen Ugarkalden, zeatik abadia Ugarkaldekua zan, eta goizian goiz, atzera oiñez Urrusulara meza ordurako. Eta meza ostian kontau ei eben, ba, Oñatin jai haundixa izan zala, jente danak urten ebela kalera eta, hamabittan-edo hasi ziranian eliza danetako kanpaiak jotzen, itxafleruak jaurti zirala, eta horrekin batera argixak ixutu zirala, kaleko argixak. Ez oraingo moduko argixak, e! Ipurtargi batzuk ziran, baiña izan zan, buenooo! Izan zan izugarrizko jaixa, jente dana txaloka, txistularixak, musikia eta dana! Bueno, ba, hori dana kontau ei eben, eta han aldameneko etxeko gizona, ba, oso interesauta esan ei otsan:

- Eta Jauna, baiña hori, berorrek esaten dauen argi hori, zela, zela egin daue, ba?

- Ai, zela egin dauein? Ubaoko urakin!

- Ubaoko urakin?

- Bai, Ubaoko urakin.

Eta gizon horrek hurrengo egunian, goizian goiz, eguna zabaldu baiño lehenago, hartu astua eta bi ontzi haundi, eta hor doia Ubaora. Eta, bueltan, abadiarenian jo eben atia, eta...

- Zer, zer zabiltz, ba, gizona?

- Jauna, ekarri dot Ubaoko ura. Orain zer egin bihar dot nik honekin?



Ubaoko erreka urakin sortutako argindarrari esker ifiñi zittuain kaleko argixak Oñatin



Ubaoko erreka (Santi Mendiola)

Ikustekoa!

Halakoxea da, bai, Tino De la Vargak etxean ipintzen duen Belena, ikustekoa! la 5 metro luze eta 2 metro zabal dituen oinarriaren gainean, ohiko Jaiotza ez ezik, duela bi mila urteko Palestinako herriska bat eta, mendian gora, errekatxo baten gainaldiean, gaztelu bat ere ageri da, Herodesena omen.

Etxe eta bestelako eraikinez gain, pertsonen 101 figurtxo ditu Belenak, animaliak, lan-tresnak, saltokietako produktuak eta bestelako apaingarriak zenbatu gabe. Bitxikeriak ere ez dira falta; adibidez, jaiotzaren ondoan ikus daitekeen txalaparta, euskal kulturako ukitu bat emateko, eta pertsonaien artean Kataluniako belenetan tradizio bilakatu diren *Caganer* erako figuratxorik ere ez da falta.

Aurten Olentzero ere ipini nahi zuen —haurrek galdetzen omen diote non dagoen—, baina neurrikorik aurkitu ez duenez, aldamentxo batean ipini du ikazkinaren irudia (7), txondor eta guzti.

Aitarengandik datorkio Tinori —emazteak eta bi semeek ere laguntzen diote—

Belena jartzeko zaletasuna. Ume-umetatik bizi izan du etxean.

Belenean ageri diren etxe eta eraikin gehienak aitak egindakoak dira, baina Tino bera ere urtero elementu berriren bat gehitzen saiatzen da, eta aurten errota bat (2) egin du, palak mugiarazten dizkion mekanismo eta guzti. Errekatoxo bat ere badu, gazteluaren behealdean, eta gabaz ere ikusgarri geratzen da, argiekin (6). Tinok urtarrila amaiera arte mantentzen du Belena; beraz, bertatik bertara ikusi nahi izatera, jarri berarekin harremanetan. Merezi du!



Eskola Kiroleko familia guztiarentzat, Zorionak eta Urte Berri On!

2024

Doinua: Abokatuak deitu berri dit

Gutxi falta zaizu Olentzero
zure bordatik jaisteko.
Baditugu gomendio batzuk
aurten zuri emateko:
asto gainean ez jaitsi beheara,
oinak dituzu ibiltzeko.
Afaltzeko ardoaren ordeaz
troskako ura hobeto.
Pipa erretzea alboratu,
aire garbia hartzeko.
Oparien sakua ohitura
osasuntsuz betetzeko,
herriko haurrek euren burua
ongi zaintzen ikasteko!



★ Ohitura osasuntsudun 2024a izan dezagun ★ Por un 2024 de hábitos saludables ★
Praktikatu 5210 egunero!



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

